

BALEIKE



NAGORE ZUMAIAN

**11/13 AUZIA
HASTEAR DA**



BALEIKE
%5
BAZKIDEA

299€

7Kg

1.200bira/min

ZANUSSI
ZWF71243W



339€

BALEIKE
%5
BAZKIDEA

8Kg

1.200bira/min

ELECTROLUX
EW2F4822AB

ORDAINDU
12 HILABETEAN
Interesik gabe



449€

BALEIKE
%5
BAZKIDEA

8Kg

1.400bira/min

Inverter motorra

BALEIKE
%5
BAZKIDEA

AEG
L6FBG844



399€

10Kg

1.400bira/min

Inverter motorra

ZANUSSI
ZWF01483W

SALTZEAZ
GAIN,
ARRETA ERE
EMATEN
DUGU

TIEN 21



www.endañetazumaia.com



BALEIKE 290

2019-IRAILA

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:
ARNAITZ RUBIO APREA

Aurkibidea

- | | | | |
|----|--|----|--|
| 4 | Hitz tantak Maria Maya Manterola <i>Ramon Chamorro</i> | 26 | Bazkide kluba |
| 6 | Izpiak eta hizkiak Arnaitz Rubio Aprea <i>Aurreiritziak</i> | 28 | Plazan bazan |
| 8 | Hainbat aburu Axier Lopez <i>Matxismoaren adierazpen askatasuna?</i> | 31 | Osasuna Rosa Azkue <i>Dieta mediterranea</i> |
| 9 | Errematea Miren Osa Galdona <i>Erronka</i> | 33 | Heziketa Izar Arregi <i>Mugiarazten gaituen hori</i> |
| 11 | Erreportajea Maria Maya Manterola <i>Herritarren babesarekin, epaiketari heltzeko prest</i> | 34 | Zientzia eta ingurumena Gonzalo Torre <i>Oinak lurrean, begirada zeruan</i> |
| 17 | Elkarrizketa Juan Luis Romatet <i>Esti Curiel: Antezlan honek balio emozionala du, ni neu ari naizelako dena zerotik sortzen</i> | 38 | Orduan bai Imanol Azkue <i>Ostrak, arroketako ahogozagarriak</i> |
| 22 | Erretratua Julen Aperribai <i>Naiara Barredo, isobaren artetik</i> | 42 | Kultura Juan Luis Romatet <i>Elefantearen oihua bueltan da</i> |
| | | 43 | Agenda |
| | | 44 | Literatura Asier Arakistain <i>Iragana ez da beti hoberena</i> |
| | | 45 | Nire txanda Ibane Astigarraga <i>Publikoa eta barnekoa</i> |
| | | 46 | Azkena Juan Luis Romatet <i>Pavloven rabak</i> |

BALEIKE

Argitaratzailea

Urolako Komunikazio Taldea
Koop. Elk.
Soreasu z/g. 20730
AZPEITIA
943-86 15 45
aldizkaria@baleike.eus
www.baleike.eus

Lehendakaria

Xabier Azkue Ibarbia
Zuzendaria
Juan Luis Romatet
kattan@baleike.eus
Erredaktore taldea
Izaskun Urbieta
Maria Maya Manterola

Diseinu arduraduna

Ane Azkue
Hizkuntza arduraduna
Imanol Azkue Ibarbia

Publizitate arduraduna

Felix Aizpurua
publizitatea@baleike.eus
Administrazio arduraduna
administrazioa@baleike.eus

Inprimategia

Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)
Lege Gordailua:
SS-405/94
ISSN: 1136-8594
Tirada: 800 ale

TOKIKOM



Gipuzkoako Foru Aldundia



Zumaiko Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

k
kutxabank

Ramon Chamorro

TESTUA ETA ARGAZKIA: MARIA MAYA MANTEROLA

Sukaldaritza du pasio gaztea zenetik Ramon Chamorrok. Aitaginarrebaren bidez ezagutu zuen olagarro lehorra, eta bere errezeten oinarritzko osagaia izan da ordutik. Inda-Mendi elkarte gastronomikoan jatorduak ere prestatzen ditu, egun berezietan.

Sukaldaria zara afizioz; mekanikoa ofizioz.

Elkarte gastronomiko batean sartu, eta inplikatu egiten zara. Inda-Mendi sortu zenetik nago hemen, ia 41 urte. Anjel Bakedano izan da elkarte honetan sukaldaritzaren sustatzaile nagusia. Hari laguntzen hasi nintzen, eta, pixkanaka, gustatzen zaidan horretara hurbiltzen.

Zein da zure zeregina Inda-Mendin?

Aurrekontuaren eta kide kopuruaren arabera prestatzen dugu jatekoa. Udalaren bidez egin izan dut lan, Dantzari Txiki Egunean Musika Eskolarentzat ere bai... ohitura bat da.

Kasu berezietan ere egiten ditut jatorduak: Fromista, Tuy eta Zumaiaren arteko senidetze prozesu bat abiatu zuten duela urte batzuk herri horietako udalek. Hori dela eta, 160 pertsonarentzako bazkaria prestatu genuen. Fromistarrek ekarritako hamabi arkume erre genituen, eta hiru herriotako herritarren artean jan. Elkarte goraino bete genuen; bai beheko aldea, baita goikoa ere. Uste dut ez dela inoiz elkarte hain bete egon.

25 urte daramatzazu urtean behin San Juan egoitzako adinekoei bazkaria prestatzen.

Oso polita izaten da. Duela urte batzuk guk eramaten genien janaria, baina dagoeneko badira urte batzuk guk prestatutakoa San Juan egoitzako langileek elkartearen bertan zerbitzatzen dietela. Egun berezia izango balitz bezala itzaroten dute bazkaria. Koadro bat oparitu genien duela gutxi, eta urte hauetan guztietan ateratako argazkiekin osatutako panela oparitu ziguten haiek.

Azarorako jarri duzue aurten bazkaria. Zer prestatuko diezu?

Menu finko bat dugu jarrita. Lehen aldatzen joaten ginen, asmatu genuen arte. Itsaski krema, otarrainkak, legatza labean txirlekin, azpizuna

eta, amaitzeko, pastelxoak. Beraiek gozatu egiten dute, eta guk ere bai.

Pulpo elkarte gastronomikoan ere prestatzen dituzu jatorduak.

Urtero izaten naiz, urteurreneko bazkaria egiten. Ohitura batzuei eustea gustatzen zait. Hala ere, laster utzi beharko dut, ez naiz denera iristen eta.

Juan Mari Lopezek zuk egindako olagarro estraktu batekin izozkia egin zuela kontatu zigun uztailleko Baleike aldizkarian.

Bai, duela lauzpabost urte. Lehenago ere entzuna nuen Tolosako babarrunen izozkiarena, eta Juan Mariri komentatu nion olagarroarena egitearen ideia. Proba batzuk egin genituen, baina zapore fuerteegia zuen. Zaporea ez da izozki arrunt batek izan dezakeena. Olagarro lehorrarekin egin nuen estraktua.

Noiz hasi zinen olagarroa lehortzen?

Bizi osoa daramat. Arritokieta kalean bizi zen lehen nire aitaginarreba, Añezkoan, eta betidanik lehortzen zuen olagarroa. Nire emaztea ezagutu nuenetik, beti ikusi izan dut olagarroa lehortzen. Gaur egun, nire lehortegia daukat, eta hor egiten dut lan.

Norberak etxean berehalako olagarro krema egiteko produktua sortu duzu.

Badira bost urte horretan jarri nintzela. Olagarro zopa arrunt batetik ateratzen da; ondoren, lehorketa eta birrintze prozesu bat du. Krema bat da, azkartasuna delako bilatzen nuena: hamar minutuan egiteko modukoa da. Berehalakoa izan dadin, krema behar du izan. Olagarro zatiak izango balitu, hidratatzeko denbora gehiago beharko luke. Egiteko ordubete behar bada, ez du merezi. Jendeari gustatzen ari zaio. Baimenen tramite batzuk egiten ari naiz, eta hemendik urte batzuetara merkatura ateratzea espero dut. Makinaria prest dut dagoeneko: baimenak bakarrik falta ditugu. Gero, merkatura aterako dugu.

Eta, oraintxe, zer duzu esku artean?

Beste produktu batzuk egiten ari naiz, merkaturan ez daudenak, olagarroarekin eginak. Hala ere, aurrerago emango dut horien berri. ■■■



Aurreiritziak

ARGAZKIA ETA TESTUA: ARNAITZ RUBIO APREA

Norbait elkarrizketatzera joatean zarenean, nire kasuan argazkiak ateratzera joatean, elkarrizketatuaren inguruko aurreiritziak izan ditzakegu, onerako eta txarrerako. Ezaguna delako, entzundakoogatik, ikusitakoogatik, zurrumuruengatik... Eta batzuetan aurreiritzi horiek berretsi egiten dira.

Kasu horietako bat Panpi Laducherena da. Harmaila aldizkarian elkarrizketatu zuten, eta Iparraldera joan ginen, Azkainera. Luze hitz egin zuten, pilota munduaz, bere bizitzaz, haurtzaroaz, abeslaria izan zenekoaz, gauza batez eta besteaz. Panpiren kasuan nituen aurreiritziak bete ziren, eta, bai, onerako. Baina tamalez, beti ez da hala izaten. ■■■■

Datu teknikoak: *Nikon D 750; 1/2000seg.; f4; 50mm; ISO: 250; Flasharekin aterata dago.*





Matxismoaren adierazpen askatasuna?

Plaza publikoan zer adierazi daitekeen eta zer den ezkutatu beharrekoa gosea baino zaharragoa den eztabaida da. Aterabide zehatzik ez duena, gainera, eta horregatik zoragarria. Aldian aldiko politikoki zuzena denaren eta norberaren balio eta mundu-ikuskeraren arabera agertzen zaigu.

Ez bai unibertsal horrek izan du ordainik Zumaian. Zeintzuk dira adierazpenen mugak, nork ezarri behar ditu? Eta nola eta zeinen izenean? Zer da espazio publikoa eta pribatua? Zer zikin eta zer garbi? Hamaika galdera pareta baten bueltan. Garai, geografia eta esparru guztietan gertatutakoa, baina talka bera funtsean: debeku hotsak goitik eta sorkuntzarako deiak behetik.

Azken urteotan, tamalez, asko eta askotarikoak izan dira adierazpen askatasuna murrizteko arauak eta saiakerak. Antzerkian edo musikan, Altsasun edo Katalunian, kalean edo sarean, kazetari, txiolari edo txotxongilolari... Baina azken aldiko interesgarrietako bat Bilboko jaietako C. Tanganaren kontzertuak piztu du. Berezia, debekuaren aldeko ahotsak "goitik eta eskuinetik" baino, "behetik eta ezkerretik" heldu direlako; bateko eta besteko iritzi eta (sarri), irain, trukaketa itzelaren erdian.

Madrilgo musikaria ezagutzen ez duenarentzat: urrezko katez eta emakumeen ipurdiz inguratuta agertzen diren AEBetako alfa ar raperoen enegarren aldaera *kastizoa* da, *autotunez* eta Lacosteko

kokodrikoz apaindurik. Haren kantuak "matxistak, patriarkalak eta emakumeekiko mespretxuzkoak" direla iritzita, zenbait talde feministaren eta alderdi politikoren kontraktotasunak lortu zuen Bilboko Udalak kontratatutako kontzertua Udalak berak bertan behera uztea.

Bo, egiari zor, Tanganak doako bi kontzertu eskaini ditu Bilboko jaietan. Santana 27 musika areto pribatuan, jendez goraino beteta. Hura ordezkatzeko Pedro Capó aukeratu zuen Udalak. Maitasun erromantikoaren aldaretik, beti gorpuzkera bereko emakumez inguratuta, abesten duen Los 40-rako produktua. Kantetan bikotekide ohia jeloskor jartzeko, beste emakume batzuekin irteteaz aritzen dena, adibidez.

HAUXE BAI JENEROA!



ERREMATEA



MIREN OSA GALDONA

Erronka

Eusko Jaurlaritzak martxoan argitaratutako datuen arabera, EAEn 30 urte ingururekin emantzipatzen gara. Behin alde egitea lortuta, batez beste, 1.057,90 euroko kostuari egin behar diogu aurre Gipuzkoan alokairuan bizi nahi badugu, lau paretak konpartitzera kondenatuz; errenta poltsiko bakarretik ordaintzeak soldataren % 70 bertan uztea baitakar, eta soldata gehienak hurbilago daude hiru zifra kopuruetatik, laukoetatik baino: EAEko eta Nafarroa Garaiko gazteon % 72 baino gehiago ez da 937 euroko diru sarreretara iristen. Eta, noski, horri soldata arrakala gehitu behar zaio: 30 urtetik gorako emakumeek batez beste 1.422 euro irabazten dituzte hilabetean; 1.922 poltsikoratzen dituzte batez beste gizonek. Pisu turistikoek ere eragina dute gazteon emantzipazio berantiarrean: Airbnb plataforman bilaketa bat egitea nahikoa da Zumaian 44 pisu turistentzat gordeta daudela jakiteko.

Konfort zonatik ateratzeko mezuekin bonbardatzen gaituzte komunikabideek nahiz inguruko lagunek. Erronka berriak bilatu behar direla, esperientziak bizi, gauza berriak egitera ausartu. Ez al da nahikoa egoera iraultzea? Nago datuok ikusita egungo errealitateak ongizateak gutxi duela, eta “nola edo ahala” bizitzetik asko. ■

Matxismoaren toxikotasunaz, alegia. Bilboko egitarau ofizialaren barruan ere jo zuen Bebek, “emakumeek denbora galtzen dute biktimarena egiten eta feminismoarekin bat egiten”, dioenak. Horiek ez dute polemikarik piztu.

Tanganaren debekuak eragindako eztabaida bera izan da interesgarriena eta horren barruan galdera hau: erakunde publikoek matxismoari, arrazakeriari edo faxismoari ahotsa (eta dirua) eman behar diote? Nekez esango du inork baietz, publikoki bederen, baina... beti dago baina bat. Lehen galdera, betikoa: zeinek eta nola erabakitzen du mezua patriarkala, xenofobia edo nazia den? Baina demagun, adostasun handia dagoela esateko, baietz, hark edo horrek eszenatokitik dioena kolektibo

bat azpiratzeko asmoa duela. Orduan, zer? Ba, horiek ez kontratatu, ezta? Ados. Baina horrela ez bada, kontua korapilatu egiten da, Tanganaren kasuan lez, emanaldia adostuta eta iragarrita dagoenean. Izan ere, politikari batek musikari bati mikroa kentzea, ekintza zatarra delako. Adostasuna izanik ere.

Tangana egitarautik kentzeko eskaerak 16.000 sinadura bildu zituen sarean. Eta gizon honen ustea da –barka atrebentzia– milaka lagunek, sormena eta ekintza zuzenaren bitartez, ariketa pedagogikoagoak egin ditzaketela eztabaida eta borroka zahar honetan bestelako aterabideak bilatu eta aurrera egiteko. Besteak beste, matxismoak lekurik izan ez dezan eszenatoki publikoetan, ezta areto pribatuetan ere. ■



PUBLIZITATEA



Arrain eta mariskoak

Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

Zuloaga plaza, 1
tel. 943-86 23 09



diseinua inprimatzea

Alai 8, 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
tel.: 943-14 31 22 ■ fax.: 943-14 31 20
a3@a3zumaia.com ■ www.a3zumaia.com



Agurtzane Okindegia

Erribera 2 • 943-86 21 52



AITA MARI
Jatetxea

☎ 679 10 31 67
aitamarijatekxoa@gmail.com
Juan de Zigarán 1 behea • 20750 Zumaia



AIZPURUA
LIBRURU
DENDA

Aita-Mari auzategia, 17
tel. 943-86 15 69



AL-ANON

Alkoholikoen senide eta lagunen elkartea
Tel. 650 26 59 63
Ordutegia: asteazkenetan, 20:00-22:00
larunbatetan, 19:00-21:00



ALBERDI
dekorazioa

- Eskaiola
- Pladur-a

☎ 696 72 61 88
943-14 32 61



Amata
taberna

tel.: 943-54 31 64
amataberna@gmail.com
Ortega y Gasset kalea 4, Zumaia (Gipuzkoa)




Ardantzabide
ALTZARIAK-AROZTEGIA

www.ardantzabide.com

Denda: Txomin Agirre, 4
Tel.: 943-86 25 32

Aroztegia: Santiago, 40
Tel.: 943-86 16 31



OKINDEGIEN
Arkupera

Nagusia, 2 - tel. 943-86 15 21
ZUMAIA

OCI-EDER



ATARI
TABERNA

Pintxo bereziak eta olagarro-zopa

Ardantzabide, 16 - Tel. 943-50 91 69



BOSCH Service

Bosch Car Service

Autos Zumaia

Gasolina injekzioa
Diesel injekzioa
Elektrizitatea/Elektronika
Piztea

Balaztak, ABS, ESP
Mantentze mekanika
Motorraren mekanika
Hozte sistemak

Urola plaza 3-5
autoszumaia@bosch-bos.com

Tel. 943-86 14 85



Azkue

www.ricardoazkue.com
Txomin Agirre 4, behea tel. 615 79 34 06 / 943-86 26 51
elena@ricardoazkue.com fax: 943-86 27 48



943-86 02 75
697 81 24 92
batzokizumaia@gmail.com
Eusebio Gurrutxaga plaza, 6
Zumaia (Gipuzkoa)

bai bidea
Taberna · Jatetxea
Bar · Restaurante



Finas
frantses
eskara
anglari
espagnoi
katalan
katalan
suomi baski
gatala finoa
frantses anglis
katalan frantses
kastelano finoa
inglis baski katalan

Bakun
ITZULPEN ETA ARGITALPEN
ZERBITZUAK S.L

San Isidro, 25
20749 Arroa

tel./faxa 943-14 83 06
bakun@euskalnet.net



Basodi
albaitaritzza

filbaitaria
Maki Garmendia

Basodi, 7, behea - tel. 943-14 33 10
vetermaria@basadiclinivet.com
www.basadiclinivet.com

Goizez: 11-13 / Arratsaldez: 16-18:30 / Astelehen goizean eta larunbatetan itxia
Larriak/dietarako: 605 72 87 07 Etxez ebokoz zerbitzua



BEHEKO PLAZA
taberna-jatetxea

- Eguneko menua
- Karta
- Pizzak
- Taldeentzako menu bereziak

BERRITUA

Eusebio Gurrutxaga plaza
Tel. 943-86 17 00

Herritarren babesarekin, epaiketari heltzeko prest

Sei urte igaro dira Nagore Garcia Herrirako kidea atxilotu zutenetik. Irailaren 16an hasiko da haren eta presoen babes taldeetako beste 46 euskal herritarren aurkako epaiketa, Audientzia Nazionalean.

Testua: **Maria Maya Manterola.**

Argazkiak: **Arnaitz Rubio Aprea.**

Irailaren 16an hasiko da presoen babes taldeetako 47 euskal herritarren aurkako epaiketa Audientzia Nazionalean. Abokatuak nahiz Herrira, Etxerat eta Jaiki Hadi elkarteetako kideak dira auzipetuak, eta tartean da Nagore Garcia zumaiarra. Fiskalak 13 urte eta 6 hilabeteko espetxeratzea eskatu du harentzat, talde terroristako kide izatea eta terrorismoa goratzea leporatuta. Gastu juridikoak eta logistikoak kontuan izanda, 350.000 euro inguru ordaindu beharko dituzte, 7.500 euro inguru auzipetu bakoitzak.

Epaiketari aurre egiteko ekimenak abiatu dituzte azken hilabeteotan. Hain zuzen ere, ekainean eman zuen herritar talde batek *Nagore Zumaian* dinamikaren berri. Epaietako gastuatarako dirua lortzeaz gain, elkartasuna adierazteko bideak aztertu zituen taldeak lehen asanbladan. Ekitaldi ugari antolatu dute ordutik, eta, taldeko kideen hitzetan, “bikaina” izan da herritarrek emandako erantzuna.

Nagore Zumaian taldekoak izan dira lan horretan aritu direnak, baina uste dute herritarren inplikazioa ezinbestekoa izan dela. Ostegunetan, esaterako, elkartasun pintxo poteak egin dituzte eta herritarrak aritu dira pintxoak egiten, ogia moztzen, txandak osatzen... Kontzertuak ere antolatu zituzten uztailean, pintxo potea girotzeko, Kofradiako plazan. Las Gardenias, La Basu eta Radio Rahim taldeek eszenatokitik agertu zioten babesa Garciari.

Horretaz guztiaz gain, herritarrek ekarpen ekonomikoa egiteko aukera izan dezaten, Zumaia denda eta tabernetan izan dira azken asteotan. Epaietaren inguruko azalpenak eman eta haiek



Alaitz Gorostiza eta Irati Oliden 'Nagore Zumaian' dinamikako kideak, Nagore Garciarekin..

HERRIKO KOMERTZIOEN PRODUKTUEN ZOZKETA EGIN DUTE GASTUEI AURRE EGITEKO

AUZIPETUAK ERAGILEEKIN HARREMAN DINAMIKA LANTZEN ARITU DIRA AZKEN HILABETEOTAN

emandako produktu edota zerbitzuekin zozketak egin dituzte. Ekarpen ekonomikoa egiteko beste aukera batzuk ere izango dituzte zumaiaurrek: 25 euroren truke, gastuetan laguntzeko bono laguntzak, besteak beste. 11/13 auziaren aurkako kamisetak ere jarri dituzte salgai, Erribera kalean.

Epaiketari aurre egiteko herriz herri ekimenak abiatu dituzte, eta, gainera, auzipetuak Euskal Herriko eragile sozial eta politikoekin konponbidearen eta bakearen aldeko espazioak sortzeko harreman dinamika lantzen aritu dira. Alde batetik, auziak dakarren guztia bildu dute *dossier* batean. Testuinguru politiko orokorra izan dute kontuan horretarako, baina auzipetu bakoitzari inputatu dizkioten delituak eta zigorrak ere bildu dituzte. Inplikazioa bilatu nahi izan dute auzipetuek, bai irailaren 14an Bilbon egingo den mobilizaziora begira, baita eragile horietako bakoitzak bere eremuan egin dezakeen ekarpenari begira ere.

Manifestazioa askoren babesa izan dezan, Jon Maiak auziaren aurka idatzitako manifestua "harrera ona" izaten ari dela uste du Garciak. Hain justu ere, dagoeneko 11.000 lagunek egin dute bat testuarekin.

Epaiketa prestatzen

Azken hilabeteotan epaiketa prestatzen aritu dira auzipetuak. 47 auzipetu eta kausa ezberdinak izanik, prestaketa luzea izan du. Dinamika garatzeko ere lanean jarduteaz gain, pertsonalki indarrak hartzen aritu dira. Garciaren hitzetan, psikologikoki egoera kudeatu behar du norberak bere inguruan; bai lagunekin, baita familiarekin





Nagore Lumaian

irailaren 14an denok Bilbora!

Mobilizazio jendetsu batekin salatu nahi dute epaiketa. Irailaren 14an izango da, Bilbon.

eta gatazkaren itxiera”. Preso eta iheslariak bizi zuten egoera kaleratzea eta indarrak biltzea izan dira egindako lan batzuk. Garciaren arabera, giza eskubideak ditu oinarrian gatazka honek. Egoera horiek aldatzeko bide bakarra herritarren aktibazioa zela

ere. Prestaketa pertsonal hori “gogorra” izan da Garciarentzat, baina jendearen “babesa eta elkartasuna” ikusteak indarra eman dio.

Garciaren ustez, epaiketa tokiz eta garaiz kanpo kokatzen da: “Badira urteak aurrera begira gaudela herri honetan, prozesu bat elikatu nahian gatazka konpontzeko, bizi izan dugun sufrimendu guztiarekin amaitzeko. Auzi hau horren beste aldean kokatzen da, eta horregatik, abiatu dugun dinamika guztiak elkarbizitza, bakea eta konponbidea elikatu nahi du”. Are gehiago, uste du oraindik konpondu gabe dauden egoera horiek konpondu behar direla. Garciarentzat, horretarako beharrezkoak dira espetze politika aldatzea, preso politiko guztien etxeratzea ahalbidetzea, sufrimendua errekonozitzea eta aitortza eta erreparazioa. Konponbidean sakontzeko pausoak ematean datza auzipetuen lanak: “Herriran hasi ginenean bakoitzak bere esparruan egiten zuen lanak horri erantzuten zion. Azken hilabeteotan egindako lanak ere hori elikatu nahi du”.

Herrirako kidea zelako atxilotu zuten Garcia, 2013ko irailean. Herrira 2012an sortu zen: “Ez genuen sortu gaur egun auzipetuta gauden kideok bakarrik, herritar ezberdinak eta ugari inplikatu ziren horretan. Garai hartan guk sortu genuen mugimendu hori konbentzituratu geundelako preso eta iheslariaren egoerari irtenbide bat eman behar zitzaioela, eta horrekin elikatzen genuela konponbidea

planteatzen zuen garai hartan Herrirak. Herriz herri eta auzoz auzo, aktibazio horri forma eman, indartu eta kanalizatzea zen beren lana. Gaur egun ere auzipetu guztiak konbentziturak daude hori dela bidea: herritarren eskutik etorriko dira aldaketa guztiak.

Nazio mailako harremanak eramaten zituen Garciak. Herriz herri aritzen zen, behar ziren bitartekoak eskaintzen. Herri bilguneak sortzen ziren, eta horietan herritarrek ahalik eta ekarpen handiena egiten saiatzen ziren, norberak bere eremutik. Horri bide eman eta horretan laguntzea zen Garciaren lana. Hain zuzen ere, Garciaren arabera, lan hori guztia da epaitzen ari direna. ■■■



Ekainean abiatu zuten Nagore Zumaian dinamika. NAGORE ZUMAIAN

Prest gaude epaiketari heltzeko

IKER URBINA ABOKATUA

Iker Urbina 11/13 auziko abokatuaren hitzetan, 2011n ETAk bere jarduera armatuaren behin betiko eteteak testuinguru politiko berri bat zabaldu zuen Euskal Herrian. Presoen afera konpontzeko beharrezko aldarrikapena bereziki indartu zela uste du. Herriraren zein presoen babes taldeetako kideen aurkako operatiboak, ordea, aldarrikapen hori baldintzatzeko helburuarekin gertatu ziren, Urbinaren arabera.

Akusazioaren abiapuntua *Dena da ETA* teoria polizial-judizialean oinarritzen dela dio abokatuak: "Edozein jarduera, politikoa ala profesionala izan, erakunde terrorista baten jarduera izan daitekeenez, edozein pertsona erakunde



terrorista bateko kidea izan daiteke, norberak jakin ez arren". Teoria horretan oinarritutako hainbat epaiketa izan direla gogorarazi du, baina epaiketa honek bestelako larritasun bat duela irizten dio Urbinak: "Akusazioek *Dena da*

"AKUSAZIOEK DENA DA ETA TESIA MANTENTZEN DUTE, ETA BERA EZ DAGOENEAN"

ETA tesia mantentzen dute, *ETA* bera ez dagoenean. Akusazioa anakronikoa eta ulergaitzagoa egiten du". Garciaren aurkako akusazioak 2012koak direla ekarri nahi izan du gogora abokatuak. Hortaz, auzipetuak ETako kideak ez zirela eta akusazio horri eusteko oinarritzko elementuak falta direla demostratu nahi dute, Garciak presoen eskubideen defentsan jardun zuela erakustez gain.

Urteak daramatzate epaiketa prestatzen, baina epaiketaren data jakin zutenetik lan erritmoa handitu egin da: "Milaka orrik osatzen dute prozedura, eta horrelako epaiketa batek horien kontrol zorrotza eskatzen du". Auzipetu kopurua handia izanik, abokatuaren arteko koordinazioa eta elkarlana "finde beharra" eskatzen du. Hala ere, prest daude epaiketari heltzeko.



Nagore Zumaian dinamikaren baitan ekitaldi ugari antolatu dituzte. NAGORE ZUMAIAN, MARIA MAYA MANTEROLA ETA JUAN LUIS ROMATET



"Antzezlan honek balio emozionala du, ni neu ari naizelako dena zerotik sortzen"

ESTI CUIREL AKTOREA

Esti Curiel aktore zumaiarrak ez du udazken honetan atsedenerako aukera handirik izango. Azaroaren 21ean, berak sortutako pertsona bakarreko antzezlan aurkeztuko du Azpeitiko Antzerki Topaketetan, eta, aurretik, urriaren 5ean, ikuskizun bat Zumaiako Musika Bandarekin Zumaietan. Horren guztiaren inguruan aritu da hizketan *Baleikerekin*.

Testua: **Juan Luis Romatet**. Argazkiak: **Arnaitz Rubio Aprea**.

Denbora, familia, amatasuna, heriotza... Gai sakonak landuko ditu Esti Curielek azaroaren 21ean Azpeitian aurkeztuko duen antzezlanean. Sakonak, baina, betiere, umoretik eramanda. *Zilborrestea(k)* du momentuz izenburua antzezlanak. "Zilborrestea, berez, bakarra dugu, baina familia kontuez hitz egiten ari gara, eta soka bat bezala ikus daiteke. Ikusiko da gaur egungo emakumeak soka hori moztu nahiko duen, ahalko duen, ezingo duen...". **Azaroan bakarkako antzezlan aurkeztuko duzu Azpeitiko Antzerki Topaketetan.** Aurretik ere egin ditut bakarkako lanak, baina gauza txikiak izan dira, enkarguak. Hau erronka handiagotzat hartu dut. Ideia baten inguruan hasi nintzen lanean; oinordetza emozionalak hartu nituen gaitzat, eta banekien bakarrik egon nahi nuela agertokian, bakarriketa izan behar zuela. Ez tabernan egiten diren bakarriketen modukoa –halakoak ere egin ditut–, baizik eta pertsona bakarreko antzezlan. Amona, ama eta alaba baten historia kontatu nahi nuen, hiru pertsonaiak nik eginda. Nire adineko emakume

bati agian interesatzen zaizkion gaien inguruan hitz egingo dugu: amatasuna, heriotza, familiatik eta gizartetik zer jasotzen dugun... Gaiak drama sakon baten itxura du, baina umoretik eraman nahi izan dut, eta horregatik Aitziber Garmendiari eskatu diot testua idazteko. Zuzendaria Miren Gojenola izango da.

Heriotzaz eta amatasunaz hitz egingo duzu antzezlanean. Arduratzen zaituzten gaiak al dira?

Ez dut ezer pertsonalik kontatu nahi izan; ez da ezer autobiografikoa, dena asmatutakoa da. Baina nire adin tarteko jendea ama izaten hasia da. Ez dakit ama izan nahi dudana ala ez, baina bada hitz egiteko gai bat.

Ez duzu testu baten gainean lan egin. Sormen prozesu baten ondorioa izango da testua.

Sormen prozesuetan nahiko ohikoa da hori, inprobisatzen aritu ondoren norbaitek testua idazten du. Ideala izango litzateke testua idatzi behar duen pertsona ere inprobisazioetan izatea, baina Aitziber ez da geldirik egoten, eta berekin beste era batera egingo dugu lan. Inprobisazioen laburpen bat erakutsiko diogu, gauzak dezente zehaztuta, eta horiei hitz zehatzak jarriko dizkio

berak. Momentu bakoitzean zer esan nahi dugun badakigu, baina hitz zehatzak eta umorea noiz sartu, horiek denak Aitziberrek erabakiko ditu.

Zu zara antzezanaren abiapuntua, baina ez duzu testua idazten. Ez duzu nahi izan? Edo ez zara atrebitu?

Biak, ez naiz atrebitu eta ez dut nahi izan.

Proiektu hau aurrera eramatea kristoren erronka ari da izaten niretzat. Nire beldurren aurrean, denaren aurrean aurkitzen naiz. Gai izango naiz? Ez? Gaia jarri dut, ekoizpen guztia ni ari naiz egiten, dirulaguntzak eskatu ditut, lekuak bilatzen nabil... Dena ari naiz egiten, baina den-dena ezin dut egin. Aitziberrekin iazko maiatzean hasi nintzen honi buruz hitz egiten, eta 'marroi' honetarako zuzendaria aurkitzea ere lana izan da. Hala zioten, 'marroi' bat zela. Miren aurkitu dut eta gogotsu hartu du lana.

Urte oso bat joan gara erronkak gainditzeko, eta derrepentean Azpeititik deitu ninduten, eskatu nuen egonaldia onartzen zutela esateko. Ez hori bakarrik, esan zidaten azaroan izango zela estreinaldia. Proiektua pixka bat alboratuta nuela harrapatu ninduen, eta hor ikusi nuen ondo etorriko zitzaidala, fetxa bat behar nuelako. Miren sartu zen, inprobisazioak egin ditugu, Aitziberri hilabete inguru emango diogu testua idazteko, eta beste hilabete eta erdi izango dugu antzezlanaren muntatzeko. Justu xamar ibiliko gara, baina hala ibiltzen naiz!

Presaka ibiliko zara, baina kasu honetan antzezlanaren ez zaizu arrotza egingo?

Hori da. Hala ere, nahiz eta nigandik sortutako zerbait izan, elkarlanean egindako zerbait izatea nahi izan dut. Beti nahi izan dut norbait tartean sartu. Miren bere gauzak sartzen ari da, eta Aitziberrek bereak ere sartuko ditu. Hori gustatzen zait. Azken finean, talde lana izatea nahi dut.

Beti beharrezkoa izango da beste norbaiten ahotsa edo iritzia izatea. Bestela mozortu gaitzake gure egoan...

Gure egoan, bai, baita gure beldurretan ere. Gure artean egindako lana izanda ere, azkenean erakusteko unea heltzen da. Azpeitiko, agian, *work in progress* moduko bat izango da, honaino iritsi gara, eta publikoaren *feedback*arekin gauzak aldatzea ere izango da. Antzerkia beti da handitzen doan zerbait. Publikoak esaten duenari adi egon behar duzu.

Aurretik ere egin dituzu bakarkako lanak. Haiekin alderatuta desberdina al da hau?

Agian da gauzak nola hartzen ditudan nik.

Antzeko gauzak egin ditut besteetan, baina hemen nik eragin diot motorrari, eta horregatik agian garrantzi handiagoa ematen diot. Hor ikusten dut aldea. Zumaiako Musika Bandarekin lanak egin ditut; *Divina Comedian*, adibidez, kristoren testutzarra ikasi eta moztu behar izan nuen, baina ez nion balio handirik eman. Nik, agian, ez nuke aukeratuko obra hura beste momentu batean; niri ez litzaidake aterako. Eta, horregatik, nahiz eta atzetik lan handia egon, ez diot hainbesteko baliorik ematen. Gero, beste bakarrizketa bat ere egin nuen Iruñeko konpainia batekin. Beti lanak dira, enkarguak, eta gustura egiten ditut. Baina honek balio emozionala du, ni neu ari naizelako dena zerotik sortzen. Ahalduntzen ari naiz. Modan dagoen hitza da, baina hala da.

Beharren bat sentitzen al zenuen halako proiektu batean sartzeko?

Gogoan dut orain 7-8 urte elkarrizketa bat egin zenidatela *Baleiken*. Galdetu zenidaten ea zer pertsonaia egin nahiko nukeen. Pertsonaia zehatzik ez nuen, baina nirea zen, zerbait egiteko gogoan nuen. Nik uste ahalduntze hori hortik datorrela. Beti izan dut nire kabuz zerbait egiteko gogoan, baina beldurra edo ardurak hor zeuden. Gaia bilatzen ibili nintzen. Zer egin? Nola egin? Denboraren gaia buruan nuen, denbora nola pasatzen den eta hori nola bizi dugun denok. Familiaren gaia ere hortik sortu zen. Pentsatu nuenean zer pertsonarekin egin ahal izango nuen lan, pauso bat eman nuen aurrera eta hor hasi nintzen lanean. Behar bat den? Amets bat? Bai. Esango nuke hau niregatik egin dudala. Askotan esaten digute aktoreei sortzaileak garela, eta ni ez nintzen hala sentitzen. Sortzailea naiz, noski! Bai horixe! Egiten ditudan pertsonaia guztiak sortzen ditut, eskatzen dizkidaten gauza txikiak ere nik sortzen ditut.

Bertigoa ere izango duzu.

Dezentekoa. Baina zerbait egingo dugun konfiantza dut. Orain Mirenekin eta Aitziberrekin babestuta sentitzen naiz, laguntza izango dudalako. Miriam Romatetek ere asko lagundu dit; nahiz eta ez egon taldean, bultzatu nau. Proiektua erakutsi nionean, zer aldatu behar nuen esan zidan. Horrek ere laguntzen dizu. Sormen prozesurako lokala ere utzi zidaten, eta eskerrak eman behar dizkiot Udalarari. Lagunek ere ilusioa dute, eta ikusten duzu zugar fedea dutela. Agian hemendik bost urtera atzera begiratu eta





Udazkena proiektuz betea du Esti Curielek.

"EZ DUT EZER PERTSONALIK KONTATU NAHI IZAN; EZ DA EZER AUTOBIOGRAFIKOA"

"BEHAR BAT DEN? AMETS BAT? BAI. ESANGO NUKE HAU NIREGATIK EGIN DUDALA"

"GAIK DRAMA SAKON BATEN ITXURA DU, BAINA UMORETIK ERAMAN NAHI IZAN DUT"

pentساتuko dut ea zertan nenbilen. Bertigoa izateko beste arrazoi bat ere badut. Orain *performance*ak modan daude; Azpaitiko topaketetan lau egonaldia izango dira, eta hor lau artista izango gara, horien artean Maite Aizpurua zumaiarra. Lau ostegunetan beste hainbat estreinaldi izango dira. Hor ikustea besteek performance moduko lanak egiten dituztela, abstraktuak, eta agian zurea oso klasiko geratuko dela... Edo ez... Zeure buruari galdetzen diozu: zein da nire estiloa? Badaukat? Ez daukat? Horrek ere beldurra ematen du.

Antzezlana Forondan egin zenuen sormen prozesu baten emaitza da. Nolako prozesua izan zen?

Oso zaila; izan ere, ez nekien nola egiten ziren gauza horiek. Nik garbi nuen hiru pertsonaia izango zirela –orain agian ez dira hiru izango–, eta pertsonaia horiek definitzen hasi nintzen: ama, alaba eta amona. Pertsonaia nagusia alaba izango zen, nire adinetik hurbilena zegoelako, nahiz eta nik beste bizitza bat eduki. Pertsonaia horiek gorpuzten joan nintzen. Elementuekin ere lan egin nuen: alaba sua zen, ama lurrekoa, erabakitzailea, eta amona airea, beste laino batean dagoena. Irudi batzuk ere banituen

buruan: Mexiko, rancherak, bainuontzi bat... Ez dakit hortik zer helduko den bukaerako emaitzara.

Zaborretik edertasuna bilatu nahian

Zilborrestea(k) ez da izango Curielek udazkenean aurkeztuko duen proiektu bakarra. Urriaren 5ean *Chez Emballage* izeneko ikuskizuna plazaratuko du Zumaiako Udal Musika Bandarekin, Zumaiena ikastetxeko aretoan egingo den emanaldian.

Joxe Mari Azkue Bandako zuzendariak egindako proposamena dago antzerkia eta musika uztartuko dituen ikuskizun honen sorreran. “Joxe Marik esan zidan *Animalien inauteria* obra jo nahi zuela, eta hortik hasi nintzen lanean. Pentsatu nuen objektuekin lan egitea ondo egongo zela, eta Tafallako lagun bati deitu nion, Sandra Aguerri. Lagunak gara, eta antzerki mota berdina ikasi dugu. Lanean hasi ginen, ideia batzuk atera ziren, eta hor beste musika batzuk sartu genituen. Hasierako obra horretako hiruzpalau pieza besterik ez dira mantenduko azkenean”. Hitzik gabeko antzerkia dela dio Curielek. “Bandak lagunduko digu beraien musikarekin eta soinuekin. Bandako kideak istorioko parte izatea nahi dugu, unibertso honetako partaideak izatea”.

Plastikoaren gaiari helduko diote. “Hainbeste plastikorekin bizitzeak gizartearen duen eragina kontatzen dugu. Hondakin pila baten itxura duen multzo hori birziklatuko dugu eta plastiko horri guztiari bizitza ematen saiatuko gara”. Erronka baten aurrean zeudela dio: nola bihurtu zaborra zerbait polita. “Aste Santuan Granadan izan ginen, Tuttili Family konpainiarekin lanean. Magia eta objektuen arteko antzerkia egiten dute, eta astebete egon ginen beraiekin lanean. Istorioa gorpuzten eta ikuskizunak funtzionatzeko zer maila erakutsi behar duen zehazten lagundu ziguten. Gure irudimena piztu behar izan dugu, eta tailerreko prozesu ikaragarria ari da izaten”.

Protagonistak bakarrik ez, antzezlanaren egiteko ere emakumeek inguratu zara.

Nahita izan da. Miren aurkitzea oso interesgarria izan zen: ama da, ni baino helduagoa, eta beste ikuspuntu bat ematen dio. Hirurok bizitza desberdinak ditugu, eta hori ere gustatzen zait. Hirurok emakumeak izatea beharrezkoa zen. Zuzendaria aurkitzen ez nuen unean beste aukera batzuk ere okurritu zitzaizkidan, baina ez nintzen saiatu ere egin. Emakumea izatea nahi nuen.

Umoreraren eraman nahi duzu antzezlan hau. Genero horretan eroso sentitzen al zara?

Bai, uste dut errazagoa egiten zaidala halako pertsonaia bitxietan sartzea. Hasieran, gai honekin, oso poetikora joaten nintzen. Edukiko du kutsu poetikoa, eta nahi dut hala edukitzea; ez dut nahi izatea zerbait komertziala. Pixka bat haratago joan nahi dut; antzezlanak sakontasuna izatea ere nahi dut. Sakona bai, baina umoretik joanda. Orain bertan pertsonaia dramatikoek ez naute erakartzen, hobeto pasatzen dut komediako pertsonaiekin. Beste gauza batzuekin ere ondo pasatzen dut. Adibidez, Ekain Albiterekin film labur bat egin dut, eta oso ondo pasatu dut. Eta ez da amorekoa! Ea nonbaiten ikustea dagoen.

Zerk erakartzen zaitu aktuziotik?

Egia esan, ez dakit nondik datorren; txikitatik gustatu izan zait. Beti nintzen etxean txistek kontatzen zituena eta amore puntu hori jartzen zuena. Antzerkia egitea gustatzen zitzaidan, eta beti maite izan dut mozorrotzea. Eskolara aktoreak etortzen ziren, eta behin esan nuen pozik egongo nintzela asto batekin herriz herri aktuatzen. Amets hori hor zegoen eta atera da. Hori bai, % 100 saiatu behar da. Pelikuletarako jantzien arduradun lanetan ibili nintzen, asko ikasi nuen, eta han jarraitzeko aukera izan nuen. Baina hori ez zen nik nahi zuena. Guztiz saiatu behar duzu zurea dena egiten. ■■■

IKASTAROAK

Txori Txiki Musika eta Dantza Eskolako antzerki ikastaroa eskainiko du aurten ere Inazio Tolosarekin batera. “Haurrentzako, gazteentzako eta helduentzako ikastaroa ematen dugu, eta aurten jubilatuentzako ematen saiatuko gara. Ondo pasatzen dute, eta beraien egunerokotasunetik ateratzeko aukera izaten dute”. Izen ematea zabalik dago jada.

Eguraldiari emandako hitzak, belarriz belarri

Naiara Barredo, isobaren artetik

Eguraldiaren inguruko informazioa bildu eta hedabideetan zabaltzen aritzen da Naiara Barredo. Euskalmeteko langilea da, eta irratietako eguraldi iragarpenetan ohikoa bihurtu da haren ahotsa. Eginbehar horretaz harago, lanbidea zertan datzan azaldu dio *Baleikeri*.

Testua: **Julen Aperribai**. Marrazkia: **Irene Irureta eta Karmele Gorroño**.

Hitz-aspertuan aritzeko hizketagai erabiliena izango da, segur aski. Igogailuetan ematen diren azaleko elkarrizketetan ohikoa da eguraldiaz hitz egitea, izan ordura artekoaz edo hurrengo ordu eta egunetarako iragarritakoaz. Isiltasun deserosoak hausteko balio die mintzakideei, hitzak neurtzen ibili beharrik gabe. “Azken batean, denoi eragiten digu eguraldiak”, azaldu du Naiara Barredok.


Besteei baino gehiago eragiten dio berari, ordea. Euskalmeteko langilea da, duela hiru urtetik. Eguneroko lana du eguratsean ematen diren aldaketak begiratzea eta eguraldi iragarpenak egiteko beharrezkoak dituzten neurgailuak aztertzea. Lanaren zati bat informazioa jasotzea eta datuen interpretazioa egitea izaten da, baina, horrekin batera, informazio hori zabaltzen aritzen da. Irrati konexioak egiten ditu; EITB taldeko irratietan, batez ere, baina baita beste zenbaitetan ere. Horrez gain, sare sozialak eta webgunea elikatzen jarduten du. Hedabideekin eta larrialdi

zerbitzuekin zuzeneko harremana izaten dute Euskalmeteko langileek, era berean.

Meteorologia ez du inoiz bokaziozkoa izan Barredok, nahiz eta onartu duen beti izan duela harekiko interesa. Unean uneko erabakiak hartzera ohituta dago, azaldu duenez, eta hala heldu da meteorologiara. “Inoiz ez dut argi izan zer izan nahi dudana, eta momentuan momentuko erabakiak hartuz egin dut bidea”, zehaztu du. Zientziaren bueltan aritu izan da beti. Ingurugiro zientziak ikasten hasi eta gutxira, uztea erabaki zuen. Fisika orokorra ikasteari ekin zion hurrengo urtean, ordea. Energia berriztagarrien inguruko masterra egin zuen Madrilen, gradua amaitu ostean. Denboraldi labur bat Zumaian egin eta gero, doktoretza bat egiteko aukera sortu zitzaion; Madrilen, hori ere. Doktoretza erdibidean zuela izan zuen Euskalmeteko lanaren berri. “Ezagun batek esan zidan norbait behar zutela. Aurkeztu egin nintzen, lana azaldu zidaten eta gustatu egin zitzaidan. Elkarrizketatu egin ninduten, eta haien baiezkua jaso nuen”, gogora ekarri du.



irrimara



Hasieratik, irratira

Eginbehar nagusietako bat irratietako konexioak egitea izango zela hasieratik jakin zuen, bai euskarazko irratietan, baita gaztelaniazkoetan ere. Dena den, onartu duenez ez zekien “lan horrek halako pisua izango zuenik”. Izan ere, egun bakarrean 15 irradi konexio egin ditzake. Irratian sekula aritu gabea izanik, erronka handitzat zuen lanaren aspektu hori Barredok. Ondo gogoan ditu lehen egunetako beldur eta lotsak: “Egutegi bat eman zidaten, eta zuzeneko lehen irradi konexioa noiz izango nuen esan zidaten. Data hura buruan nenbiltzien, eta, eguna hurbildu ahala, are gehiago urduritu nintzen”.

Hasierako beldurak atzean utzita, irratian aritzeari neurria hartu eta garrantzia kendu dio. “Lanaren parte da, eta eguneroko errutinaren barruan egin beharreko lan bezala ikusten dut orain”, adierazi du. Konfiantza hartzeak disfrutatzeko aukera eman dio, era berean: “Gustukoa dut lana. Egun denak ez dira berdinak, eta batzuetan besteetan baino gusturago geratzen naiz konexioekin, baina, orokorrean, lan polita da”.

Norbere kezkak eta beldurak alboratzeaz gain, irratia bereak dituen komunikazio kodeetara ere egokitu behar izan du Barredok. Lankideen gomendioak izan ditu lagun, batez ere. Irratien aldetik askatasun handia nabaritu du, zentzu horretan. Ahoskeraz edo erregistroaz ezer gutxi aipatu izan diote, eta Barredok berak hartu dio


neurria hedabideari, bere kasa. Era berean, irratiko gainerako esatariengandik ikasten saiatzen dela dio. Hasieran baino solteago nabari du bere burua orain: “Hasieran, ia irakurri egiten nuen dena. Orain, saiatzen naiz gauzak nire erara esaten”.

Erabateko zehaztasunik ez

Ziurtasuna eskatu ohi du eguraldi iragarpenetara jotzen duenak, eta, sarritan, ziurtzat jotzen ditu iragarpenean esandakoak. “Esaten dena ez da hain matematikoa, hain zehatza”, ohartarazi du Barredok, ordea. Zabaldu beharreko informazioa eredu meteorologikoetatik ateratzen dute Euskalmeteko langileek. Ereduak matematikoak

Naiara Barredo

- **Adina:** 35 urte.
- **Ikasketak:** Fisika.
- **Lanbidea:** Meteorologoa.
- **Meteorologoa ez banintz...** inoiz ez dudanez jakin zer izan nahi dudana, ez daukat ideiarik, baina ingurumenarekin lotutako zerbaitetan ariko nintzateke, seguruena.
- **Lanetik ateratzean gogoko dut...** pilates eta yoga saioetara joaten naiz, erlaxatzeko asmoz. Asteburuetan, berriz, kontzertuetara joatea gustatzen zait.



dira, baldintza meteorologikoak aldatu ahala, berritu egiten direnak. Ereduei emandako datuek baldintzatzen dute eredu horietatik ateratzen den emaitza. Emandako datuek beti izaten dute “errore txiki bat”, ordea, Barredok azaldu duenez: “Gipuzkoako puntu guztietako datuak ezin ditugu izan, adibidez. Puntu batzuetakoak izaten ditugu, horietan estazioak dauzkagulako. Hortaz, datu horiek ez dira guztiz zehatzak, eta hor dagoen errore txiki hori egongo da ondorengo emaitzan ere”.

Errore hori, huts tarte hori, berea du meteorologiak, eta hori aintzat hartu eta eredu desberdinen artean interpretazioak egitea dagokie lantzen dutenei. Iragarpena zenbat eta denbora tarte txikiagora egin, orduan eta seguruagoa izango da, Barredoren arabera: “Gaur egun, norbaitek esaten badizu hemendik astebetara edo bi astetara zer eguraldi egingo duen Zumaian, adarra jotzen ari zaizu”. Mugikorretako aplikazioek eman ohi dituzte halako iragarpenak,

baina hain epe luzera begira egindako aurreikuspenak ez dira oso fidagarriak izaten, Barredok ohartarazi duenez. Beste era bateko kalkuluetan oinarritzen dira, dioenez, eta ez dira oso seguruak izaten.

Edonola ere, teknologiaren hobekuntzek asko erraztu dute meteorologoen lana azken urteetan. Lan horretan daramatzen hiru urteetan aldaketa nabarmenik ez du nabaritu Barredok, baina ereduak asko hobetu direla ziurtatu diote lankideek. Datozen urteetan izango diren aldaketak bertatik bertara jarraitzeko asmo argia du, oraingoz. Hedabideei begira ematen du lanaldiaren zati handi bat, eta, ondo bidean, hala jarraituko du. Hala ere, beste alderdiak, zientziari lotuagoak, ere erakartzen duela aitortu du: “Komunikazio alorra nahikoa asetuta daukat, eta beste aldea ere gustatzen zait: gauzak aztertu, mapak begiratu, ikerketa berrien inguruko lanak irakurri... Hala ere, momentuz, ez dut aurreikusten aldaketa handirik”. ■

BIYONA

BERRIKUNTZAK-BARNE DISEINUA

Santiago auzoa, 12 · ZUMAIA
943-14 34 43
www.biyona.net ·

SUKALDEAK

Bainugelak

ETXEKO ALTZARIAK

Papel pintatuak

LEIHOAK

Keramika

GREMIOEN KOORDINAZIOA

BAZKIDE KLUBEKO ZOSKETAK



Flysch Surf eskola: Mikel Fuentes



On Gourmet: Iker Aizpurua (bere anaiak jaso zuen saria)



Sapere Aude Sinfonietta: Marije Aizpurua, Igone Saizabal, Samuel Ruiiz, Abelin Linazisoro eta Joxean Etxabe



Cosa fina: Amaia Uranga eta Iñigo San Martin

IRAILAK 16

Itzurun taberna: lau lagunentzako jatordua.

IRAILAK 23

On Gourmet: lau lagunentzako pizza handia.

IRAILAK 30

Zelai talasoterapia: zirkuitua bi lagunentzat.

URRIAK 7

On Gourmet: lau lagunentzako pizza handia.

ABANTAILAK

Baleikeko bazkide guztiak jasoko dute Baleike Klubeko txartela. Deskontu eta abantaila hauek erabiltzeko txartela aurkeztu beharko da.

DESKONTUAK

ERTZ INFORMATIKA: %2ko deskontua.

ARRUTI MODA: %5eko deskontua.

IRUITZ ILEAPAINDEGIA: Analisi kapilarra doan.

UKENDU PARAFARMAZIA: %5eko deskontua.

EKIN ELEKTRIZITATEA: %10eko deskontua lanparetan.

EGOKI BITXIDENDA: %10eko deskontua erlojuetan, urre eta zilarrezko bitxietan.

IRIONDO OPTIKA: Haurren ikasketa arazoak eta begi alferra saihesteko ikusmenaren azterketa pertsonalizatua eta estimulazio neuroauditiboa doan.

ENDAÑETA ETXETRESNAK: %5eko deskontua.

GOLDEN GATE AKADEMIA: %20ko matrikulazioan.

A3: %5eko deskontua.

TALAIA: ostiraletan, afariarekin, kafea eta txupittoa doan.

ARTAZA KANPINA URBASA: %10eko deskontua.

AIZPURUA LIBURUDENDA: Liburuak %5 merkeago.

OSKARBI KIROLDENDA: %5eko deskontua.

KALARI JATETXEA: Igandeko afaria %10 merkeago.

TRAPAIA: Igandeko bazkariarekin kafea doan.

KUKITXA: Erosketak etxera doan.

PRIMAVERA PIZZERIA: Pizzak etxera doan.



ZOKKETAK

ONURA: Fisioterapiako lau bono.

ONGIZAN: Fisioterapiako lau bono.

GAINDITUZ: Lau bono.

OTEZURI KAFETEGIA: Bi tarta San Markos.

MANDALA PAPERTEGIA: Bost euroko bost bale.

ITZURUN TABERNA: Lau lagunentzako afaria hileroko.

BQD BIDAIAK: Lau bono.

ANTZERKIRAKO SARRERAK: Emanaldi bakoitzeko hiru lagunentzako bina sarrera.

SANAGUSTIN KULTURGUNEA: Kontzertuetarako sarrerak.

Eta gehiago: datozen hilabeteotan deskontuak eskainiko dituzten denda gehiago eta zozkatzeko opari gehiago lortuko ditugu Baleikeko Kluberako. Adi egon!

Bazkide egiteko bideak:

Webgunean: baleike.eus/bazkidekluba

E-emailez: administrazioa@baleike.eus

Telefonoz: 943-86 15 45

Bi KOLoPe

Bi sudokuok kolore bana dute oinarri eta osatu egin behar dituzu. Lehendabizikoan, URDINA hitza osatzen duten hizkiak erabili behar dituzu (U, R, D, I, N eta A). Bigarrengean, berriz, BELTZA hitza osatzen duten hizkiak erabiliko dituzu.

Gogoratu, letra bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.




Bi KoiZKeta

Pertsonaiak albo batera utzita, badira gutxienez 9 elementu bi irudietan ageri direnak. Ikusten al dituzu?



5 x 5 x 5

Erreparatu ongi, berdinak diruditen bi irudi hauei. Ezkerretik eskuinera, bost elementu agertu dira, eta beste bost desagertu. Halaber, bost elementu aldatu dira. Aurki itzazu.



Engainariak



Soluzioak ikusteko:
www.plazanbazan.eus/

PUBLIZITATEA



BASUSTA
erretegia · asador

José Blázquez

Patxita Ekezarreta, 25 Tel.: 943-86 20 73
20750 Zumaia (Gipuzkoa) 943-86 04 38
asadorbasusta@hotmail.com



EDU
ZUMAIAKO
OPTIKA

Txomin Agirre kalea, 6
20750 Zumaia, Gipuzkoa
943-14 30 57

www.eduoptika.com

RPS 18/16



EGOKI

Eroju
eta bitxi denda

E. Gurrutxaga plaza, 6
tel. 943-86 17 87



Ekin
ELEKTRIKOAK, L.L.

Erribera kalea, 6 20750 Zumaia tel. 943-14 30 97
ekinsi@ekinsi.com www.ekinsi.com

Instalazio elektrikoak
Telekomunikazioak
Informatika
Internet

mara **MÁSMÓV.L**



ERNIO
TABERNA

V. Arrate, 3 Tel. 943-86 00 45



ERTZ INFORMATIKA

Portatilen mugikorren
eta tableten konponketak

Behoko plaza tel./faxa: 943-14 33 95



Galdona
burdindegia

Mendaro marnela, 1 tel. 943-86 11 17 - 943-14 33 46
Juan Belmonte, 15 faxa 943-86 13 30



Garaa

Carlos Cintero - Ainhoa Olaizola

tel.: 943-86 21 81
Txomin Agirre, s/n
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)



GLENCOE
INGLES AKADEMIA

TALDE MURRIZTUAK

Zunbilo kalea, 12 beheha
tel. 670 39 17 77

matrikulazioa dohainiki!



goiko
bodegoia

Erribera, 9 · 943-86 13 91



Ikastegi homologatua

Golden Gate
institute
hizkuntz eskola

Erribera kalea 1 bis, beheha
tel./faxa 943-86 50 20
info@goldengateinstitute.com



Gure Txokoa
aberna

Upela plaza, 4
20750 Zumaia
Tel.: 943 86 09 70



DORIA

Julio Beobide, 2
943-57 49 86



ilarzi

Alai auzategia, 2
Tel. 943-24 50 20



INPERNUPE
ELKARTEA

Erribera kalea 16. Tel. 943-86 15 23



Iriando optika

Kantauri plaza, 8. Zumaia. tel.: 943-86 04 86
Nagusia, 53. Azkoitia. tel.: 943-85 19 84



IRUDI OTS

Ikuskizun orotarako solnu
eta argiztapen alokalirua
Hots eta irudigintza aretoa

tel. 943-63 16 32 irudiots@irudiots.com

Dieta mediterranea



ROSA AZKUE

ZUMAIAKO ANBULATORIOKO MEDIKUA

Gaur egun, patroi dietetiko mediterraneoari jarraitzea gomendatzen da; izan ere, gure ohiturekin bat doan dieta izateaz gain, orokorrean gustuko ditugun elikagaiez osaturik dago. Gainera, osasuntsu mantentzen laguntzen digu eta egun ohikoak diren gaixotasun kroniko asko prebenitzen laguntzen du, adibidez, diabetesa, obesitatea, gaixotasun kardiobaskularrak edota zenbait minbizi mota.

Hona hemen dieta mediterranea egiteko gomendio batzuk:

- Zuntz edo fibra, mineral eta antioxidatzaile ugari elikagaiak hartzen saiatu.
- Egutero, gutxienez, **3 fruta pieza jan** (ahal bada garaikoak) eta **fruitu lehor gordinak** (intxaurreak, almendrak...) 3-7aldiz astean. Kontuz ibili fruitu lehor prozesatuekin, propietateak galdu edota gantz kaltegarriak izan ditzakete.
- Egutero dietan **zerealak** edota horien deribatuak (ogia, arroza, pasta...) barneratu.
- Astean 2-4 aldiz **egoskariak** (lekaleak) jan.
- Egutero birritan gutxienez **barazkiak** hartzea komeni da. Horietako bat gordinik izan dadila.

- Jakiak prestatzean edota entsaladetan **oliba olio birjina** erabili batez ere. Horretaz gain, animalia jatorriko koipeak dituzten elikagaien kontsumoa murriztu (gurina, urdaia, opil industrialak, haragi koipetsuak, gazta, hestebeteak, esne-gaina...).

Janari frijitua noizean behin baino ez hartu, baina hartuz gero, beti oliba olio birjina erabili, eta olio garbia erabili (hau da, ez dadila izan lehen ere erabilia).

- Haragi baino **arrain gehiago** jan (pisu berdinean kaloria gutxiago ditu, eta koipe osasungarriagoak eskaintzen dizkigu). Astean 2-4 errazio gomendatzen dira.
- **Haragi gorria** eta **hestebeteak murriztu**, astean gehienez ere birritan.
- **Landare olio hidrogenatuak** eta **landare** nahiz **animali koipeak** hartzea saihestu. Normalean, opil industrialetan, gailletetan, "janari-azkarrean" (fast food), aperitibo gatzatuetan edota aurrez prestatuta datozen produktuetan aurki ditzakegu. **Etiketak begiratu! Koipe mota hauek kolesterol "txarra" igotzen dute eta gaixotasun kronikoak izateko aukera handitzen dute.**
- **Arrautza** elikagai ezin hobea da. Astean 3-7 unitate hartzeak ez du inongo arazorik eragiten.

- **Azukre ugari** gehitu zaien elikagai eta edariak **saihestu**, bereziki, freskagarriak.
- Produktu **ultraprozesatuak ekidin** (gatz, azukre eta koipe kaltegarri asko dute).
- Egutero **2 esneki errazio** gomendatzen dira (errazio bat baso bat esne; 2 jogurt; 40-60 g gazta ondua edo 80-125 g gazta freskoa. Zenbait kasutan, hazkuntza garaian, haurdunaldian, edoskitzean eta menopausian, aldiz, errazio bat gehiago hartzea gomendatzen da. Bestalde, obesitate edo gehiegizko pisua eta kolesterol altua dutenen kasuan, **gaingabetua** edo **erdigaingabetua** hartu.
- **Gatz iodatua** erabili. Hala ere, gatz gutxi hartu eta latetan datozen elikagaiak, hestebeteak eta aurrez prestatuta datozen produktuak ekidin.
- **Oinarrizko edaria ura izan dadila.**
- Ariketa fisikoa egutero egitea komeni da. Ariketa jarraiak, norberaren adin eta egoera fisikoari egokitu denak, gaixotasun kronikoen prebentzioan eta osasun mentala mantentzen laguntzen du.
- **Neurritz jan pisu egokia mantentzeko.** Gehiegizko pisua izanez gero, jarraibide berberei segi, baina aipatutako errazioen tamaina murriztu. ■■■

PUBLIZITATEA

IRUITZ ILEAPAINDEGIA



San Telmo, 12
Tel.: 943-86 07 60



943-86 20 83

KABI Patxita Etxezarrete, 15
943-11 74 27

TABERNA



JUARISTI
jatetxea

Arrainak eta haragiak aukeran
Eguneko menua
Jangela klimatizatu

Basadi auzategia, 10 tel. 943-05 05 77

Kaithermik S.L.



Arotzeria metalikoa
Aluminiozko leihoak ZTHrekin,
PVCzkoak eta mistoak

Santiago auzoa, 20 Tel./faxa: 943-86 03 20



kalari

Upela plaza, 8
tel. 943-86 25 17

LABARRA TABERNA
ZUMAIA
est. 2016

Ondartxo plaza 5. Tel. 943-86 04 84



malaur

CROISSANTERIA



pizzak
hanburgesak
bokatak...

marina

Baltasar Etxabe, 2 Tel. 943-86 22 46



MENDI - ONDO S.L.
Elektrizitatea

Urola plaza, 21 tel. 943-86 00 74 - 943-86 15 69
mendi-ondo@mendi-ondo.com www.mendi-ondo.com

"Muagi"

errehabilitazioa
kirol medikuntza
fisioterapia

RPS: 034/97 Aita Mari, 3. blokea - tel. 943-86 16 91



NOIA S.L.
TAILERRAK ETA
KARROZERIAK

Etengabeko garabi zerbitzua **636 86 78 12 (Zumaia)**
609 83 44 38 (Itziar-Deba)

Hego kalea, B3 (Estazioan) Itziar industrigunea, C
20750 - Zumaia 20820 - Itziar-Deba
Tel.: 943-86 13 63 Tel.: 943-60 62 91
zumaia@carroceriasnoia.com noia@carroceriasnoia.com www.carroceriasnoia.com



LIDEN
eraikuntzak eta arkitektura

bizkaia kalea 13, zorautz
678 875 652/ 943 905 983
lur@olidenreformas.com
www.olidenreformas.com



**Zoruen kutxilaketa eta bernizaketa
Parketa jartzea**

Estazioko kalea, 12 • tel. 943-86 14 12 • 686 36 41 49



**OSKARBI
KIROLAK**

Alai Auzategia, 14 • Arranaitz, 1 Tel. 943-14 31 12
oskarbi kirolak@euskalnet.net



OSTOLAZA
OSTOLAZA ZUMAIA S.L.

Joxe Mari Kortia Industriegunea, A1 - 4. pab. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel. 943-86 50 68 • Faxa 943-86 13 45
www.ostolaza.com • e-mail: osto@ostolaza.com

Mugiarazten gaituen hori

MOTIBAZIOA



IZAR ARREGI

GURASO ESKOLAKO PSIKOLOGOA

Lau urteko haurra amaren eskutik doa kalean. Hiru langile ikusi ditu obra batean lanean. Jakin-mina piztu zaio umeari, begira-begira gelditu da, eta zertan ari diren galdetu die:

- Hementxe, txiki, adreilu eta masarekin lanean –erantzun dio urliak.
- Ni pareta bat ari naiz egiten – azaldu dio sandiak.
- Ni herriko eskola berria ari naiz eraikitzen –esan dio berendiak.

Helburu jakin bat lortzeko ekintza bat egitera bultzatzen gaituen indarra da motibazioa, hala defini genezake. Zerikusi zuzena dauka interesarekin eta borondatearekin. Latineko *motus* (mugimendu) hitzetik dator. Beraz, mugiarazten gaituena da motibazioa.

Gai oso garrantzitsua da motibazioarena. Bizitzan aurrera egiteko, erabakiak hartzeko eta ekintzak egiteko indar izugarria da. Askotan, zaila izaten da esplikatzeko eta imajinatzen motibazioari esker zer egiteko gai izan gaitzekoen. Eta zerikusi handia du bizitzako zoriontasunarekin. Hasierako parabolara bueltatzen bagara, ziur nago berendia askoz motibatuago dagoela bere lanarekin, eta horri esker hobeto eta gusturago egingo duela.

Motibazioak gure bizitzako arlo guztietan du eragina: lanean, kirolean, elikaduran, erretzeari uzteko garaian... Haur eta nerabeen kasuan, eskolako emaitzetan berebiziko garrantzia du. Gehienetan, ikasle baten ezina ez da izaten gaitasun faltagatik, motibazio faltagatik baizik.

Askotan gurasoen edo zenbait irakasleren erreakzioa izaten da: "Ez da ezin duela, ez du nahi, alferra da". Baina ez da hori arazoa. Ez du indarririk, ez du mugiaraziko duen barne bulkadarik. Motorra (gaitasuna) ondo dauka baina gasolina falta zaio. Zer gertatzen zaio gazte horri ikasteko ezintasun hori agertzeko, indarririk ez izateko? Horrelakoetan, motibazio falta da arazoa.

Baliteke gazteak bere barnean ideia irrazionalak izatea. Adibidez, "nire gurasoek ikasketen arabera baloratzen naute"; edo "nire amari ikasketak soilik axola zaizkio bere lagunengatik aurrean nire notekin harropuzteko".

Motibazioa izan daiteke barnekoa edo kanpoko. Barnekoa: niregatik egiten dudanean, niri gustatzen zaidalako. Hemen autokontzeptuak (neure buruaz daukadan iritziak) eragin handia du. Nik pentsatzen badut "nik ikasketetarako balio dut" edo "kirolari ona naiz", nola ez dut, ba, ikasiko edota kirola egingo?

Kanpoko motibazioa: sari bat lortzeko egiten dudanean. "Azterketak gainditu eta mugikor berria erosiko dizut". Edo lana soldatagatik egiten denean. Dena den, barneko eta kanpoko motibazioa, biak batera eman daitezke.

Barneko motibazioa iraunkorragoa da, kanpoko aldakorragoa. Adibidez, soilik partidak dauzkadalako entrenatzen banaiz, denboraldia amaitu eta berehala utziko diot kirola egiteari. Barne motibazioan eragitea zailagoa da, kanpoko motibazioan errazagoa.

Zailtasun mailak ere eragina du motibazioan. Helburu bat lortzea errazegia bada, ez digu satisfaziorik sortzen, aspertu egiten gara. Baina helburua zaila bada, ezinezkoa dela sentitzen dugu eta orduan ere motibazioa galdu egiten dugu.

Zer egin motibaziorik ez duen gazte horri laguntzeko? Lehenik eta behin, aztertu behar dugu zer adierazi nahi digun gazte horrek motibazio falta horrekin. Baloratu ideia horiek irrazionalak ez ote diren. Erreparatu berekin erabili izan dira kanpo motibazio estrategiak: opariak... Bere autokontzeptua aztertu, zer iritzi duen bere buruaz. Azkenik, berekin landu jarritako helburuen zailtasun maila nola ikusten duen, eta horri aurre egiteko beharrezko laguntza eskaini. ■■■

Oinak lurrean, begirada zeruan

2018. urtean ehun urte bete dira Gipuzkoako eta Bizkaiko lehen ornitologia katalogoa egin zela, eta zerrenda hori Julian Aldaz zumaiarraren lana izan zen. Mende erdi bat geroago Aranzadi Elkarteko Alfredo Novalek lan hura errebisatu, garaiko errolda idatzi eta *Munibe* aldizkarian argitaratu zuen. Gizaldi batzuk igarota, beraz, momentu ona izan daiteke behatzaile haien lana gogoratzeko, eta inguruko zenbait hegaztik izandako bilakaerari erreparatzeko.

Testua eta argazkiak: **Gonzalo Torre. Geoparkeko ingurumen koordinatzailea**

Eusebio Julian Aldaz Emazabel Zumaian jaio zen 1861ean, eta, anaia Jose Cayetano bikiarekin batera, lau anai-arrebaren artean bigarrena zen. 2015ko martxoan Pello Etxabek *Baleiken* argitaratu bezala, musika irakaslea eta orkestra zuzendaria izan zen eta XX. mendearen hasieran Zumaiako Udalean zinegotzi lanetan ere ibili zen.

Dena den, hona ekartzeko arrazoia oso bestelakoa da. Izan ere, 1918an *Catálogo de aves observadas en Guipúzcoa y Vizcaya* idatzi zuen, *Real Sociedad Española de Historia Natural* izeneko erakundearen oroitza txostenetan. Katalogokoa hegazti zerrenda luzea da, 287 espeziekoa, eta Zumaia erdigunean kokatu eta legoa eta erdian (zortzi bat kilometro) ikusitakoak izartxo batekin adierazita ageri dira. Katalogoa ehizatutako animalien lista bat da, baina Aldazek testuaren lehen lerroetan argi eta garbi azpimarratzen du asmo zientifikoa, Natur Zientzietan egin nahi duen ekarpena aitortu, eta beste ikertzaile batzuen akuilua izan nahiko lukeela nabarmentzen baitu.

Zumaiako ingurune hurbiletan 210 hegazti deskribatu zituen Aldazek, euren maiztasuna, indarrean zeuden legeen arabera

nekazaritzarako kaltegarria edo onuragarria zen, eta izenak aipatuta, baita euskal izenak ere. Azken horiek J. Francisco Aizkibelen *Diccionario Vasco-Español* lanean, Pedro Novia de Salcedoren *Diccionario Etimológico del Idioma Vascongado* liburuan eta tokiko izenetan oinarrituta daude. Era berean, Aldazek berak hala aitortuta, izen batzuk berak itzulitakoak dira.

Noval, Aldazen lanaren orraztailea

Alfredo Noval Xixonen jaio zen 1929an, eta lanbidez aduanazaina izan zen. Txorizale amorratua, besteak beste, *Sociedad Española de Ornitología* eta *British Trust of Ornithology* izeneko elkarteetako kidea zen, eta 1972an *Asociación de Amigos de la Naturaleza Asturiana* natur taldearen sortzaileetako bat ere izan zen. 1967an Novalek Julian Aldazen eginiko lanak berrikusi zituen, eta Aranzadi Zientzia Elkartearen *Munibe* aldizkarian *Estudio de la avifauna de Guipúzcoa* delako ikerketa argitaratu zuen.


Ikerlana egiterakoan, Novalek metodologia zorrotzagoa erabili zuen, eta Aldazek aztertutako eremu berbera arakatu zuen; hala, Artadi, Bedua, Andikara, Aizarna edo Meaga aipatzen dira naturazale asturiarrak idatzitako txostenean. Hala ere, Novalek onartzen du bi azterlanak ez direla guztiz konparagarriak, ikertzeko teknikak eta gaiaren inguruko ezagutzak ez baitira berdinak. Horrez gain, ornitologoak hegaztien bizitokiaren egoeraren aldaketak ere azpimarratzen ditu, pagadiak, hariztiak edo artadiak ia desagertutzat jotzen baititu, pinudien mesedetan.

Lanotan, Telesforo de Aranzadik 1961ean bildutako hegaztien euskal izenak erabili zituen ikertzaileak, baita Domingo de Epalzak zuzenean proposatutakoak ere.

100 urte pasatu eta gero, halako ahaleginik ez

Aldazek bere katalogoa argitaratu eta mende bat geroago hegaztiak behatzeko baliabide teknikoak egokiagoak dira, eta haiek ikertzeko metodologia zehatzagoa da. Gainera, zale gehiagok pasatzen du bere denbora teleskopioaren atzean, geldi-geldirik, padura, baso eta belardiei so. Hala eta guztiz ere, XX. mendearen bukaeran Itsas Enara elkarteak Gipuzkoako urtekari ornitologikoa argitaratzeari utzi zionez geroztik, Zumaiako txoriei buruzko halako lan zabalik ez da egin.

Artikulu honek jakin-mina piztea du helburu, eta hain lantegi nekosoari ez dio helduko. Horregatik, bisitari hegaldun gutxi batzuk adibide hartuta, Zumaiako hegaztie izandako gorabeherak erakusten saiatuko gara. Txori batzuk oso erraz ikusiko dituzue erriko bazterretan; beste batzuk, berriz, inguruotan bizirauteko



Aldazen liburuaren azala.



Antxeta mokogorria. *Chroicocephalus ridibundus*.



Ubarroi handia. *Phalacrocorax carbo*.



Koartzatxo txikia. *Egretta garzetta*.

egoskorkeriaren eredua dira. Parentesi artean, Julian Aldazek jasotako euskal izena ageri da, hark idatzita bezala.

Antxeta mokogorria (Kayocho aotzigorria)

Gure inguruan ikus daitezkeen ohiko kaiotetik txikiena da. Ez mokoak bakarrik, hankak ere gorriak ditu. Ugalketa garaian buruko lumak txokolate kolorekoak izan ohi ditu.

Aldazen sasoiaren ez bezala, gaur egun oso arrunta da, batez ere migratzeko garaian. Novalek pasean aipatzen du, baina gaur egun negua hemen igarotzen du. Euskal Herrian ez da ugalketarik aipatu.

Ubarroia (Itsasbelea)

Hegazti handia da, eta, papar zuria izan ezik, beltz kolorekoa. Lehorrean baldarra, ur azpian harrapakari trebea da. Sarritan, haitzetan edo adarretan egoten da, hegoak zabaldua, lumajea lehor dadin.

Txori honen bilakaera ulertzea ez da erraza. Izan ere, Aldazen arabera, duela ehun urte oso arrunta zen, eta urte osoa pasatzen zuen inguruotan. XX. mendearen erdialdean, berriz, udazkeneko pasean ugaria, neguan apenas ikusten omen zen. Alabaina, 80ko hamarkadatik oso arrunta zaigu bai neguan, baita pase garaietan ere. Inoiz ugalduta izan da Euskal Herrian.

Garaiko legearen arabera, Aldazek kaltegarria dela dio; eta, harrigarria bada ere, argudio zientifikorik azaldu gabe –ibaietako arrantzaleen jomuga– mende bat igarota ere ezin izan du ospe beltza gainetik kendu, arrain gehiegi harrapatzen omen baitu.

Koartzatxo txikia

Lumaje zuri-zuria dauka, hanka beltz luzeak eta behatz horiak ditu. Adil, inguruan ganaduari lotuta bizi den koartzatxo itzainetik bereizteko ezaugarri horiei guztiei erreparatu beharra dago eta.

Aldazek eta Novalek ez dute hegazti hau aipatzen, baina gaur egun pasean arrunta da eta ale kopurua nabarmen hazi da; udazkenean bereziki. Negua ere gure artean igarotzen du. Azken urteotan habiak egiaztatu izan dira Arabako urtegieta eta Txingudin.



Basahatea. *Anas platyrhynchos*.

Basahatea (Ugalea, Ugata)

Inguruko ahaterik arruntena da, zalantzarik gabe. Hegaletan nabarmena du urdin koloreko gunea (ispilua) eta hortik datorkio gaztelaniazko izena: *azulón*. Harraren burua berde kolorekoa da, distiratsua.

1918an neguko bisitaria zena, habia gutxi batzuk egiten omen zituen Alfredo Novalaren garaian. Aldiz, egun oso hegazti arrunta da ibaietan, urtegieta eta zenbait parketako urmaeletan. Zumaian erraz ikusten dira heldu zein txitak osatutako kohorteak, ibaiertzetik ogia edo litxarrerriaren bat botako dion jendearen enkontrura bidean.



Txirritxo txikia. *Charadrius dubius*.

Txirritxo txikia (Lepandedun ibaichori chikia)

Txori txiki hau oso ondo kamuflatzen da, eta habia egiteko hondar, hartxintzar edo harri bankuak ditu gustuko. Kopetaldea zuria dauka, beltz koloreko maskara batez inguratuta, eta begi inguruan eraztun hori bat du.

Aldazek pasean ikusten zituen, eta Novalek habiagile urria izan zitekeela aipatu zuen. Kirol portuak lokatzak irensei zituenetik bizimodu latza dute txirritxo eta enparauek. Zumaiaiko paraje horien inguruan habia egin ohi duen limoetako hegazti bakarra da, eta urtez urte saltoka ari da arrautzak jartzeko toki egokiaren bila. Hala, Santiagoko Jardineroretxearen ondoko harriztan saiatu eta aparkalekua egin zuten; GKN enpresaren aldameneko futbol zelai izandako gunera joan, eta han ere makinak sartu dira; Santiagoko paduran ere ezin, hesiak zeharkatzen dituzten jende eta txakur andana dela medio. ■■■

**ZUMAIAKO INGURUNE
HURBILETAN 210
HEGAZTI DESKRIBATU
ZITUEN EUSEBIO
ALDAZEK**

**KATALOGOA BAINO
MENDE BAT GEROAGO
HEGAZTIAK BEHATZEKO
BALIABIDE TEKNIKOAK
EGOKIAGOAK DIRA**

Ostrak, arrocketako ahogozagarriak



IMANOL AZKUE

Uztailean bi lagun atxilotu zituzten Donostian, Nautikoaren azpialdean 50 kg ostra biltzeagatik lizentziarik gabe eta debekualdian. Bat baino gehiago harritu zen, gurean ere ostrak badirela jakinda, baina urrutira joan gabe, horretan ere badaukagu zer kontatua.

Ostrak molusku bibalbioak dira, hau da, gorputza alboetatik zapalduta eta bi kuskuko maskor bat daukate, babesteko. Itsasbaterrean eta erriean hazten dira, eta gizakiak propio ere hazten ditu, oso estimatuak direlako jateko. Kobazuloetako aztarnategietan maskorrek aurkitu izan dituzte, eta Erromatar Inperioaren garaian propio hazten zituzten. Baina haztegiak, batez ere, XIX. mendean garatu zituzten, aurrerapen handiak egin eta emaitza onak lortu zituztelako Frantzia, Ingalaterra, Belgika... Horien berri izanda, Espainiako gobernuak ere bereziki bultzatu nahi izan zuen ostren eta almejen hazkuntza; horretarako, baimenak eta hazitokiak doan ematen hasi zen. Horietako bat lortu zuen, hain zuzen ere, Eusebio Gurrutxaga industrialariak, 1863an; horrela, ostra haztegiak jartzeko baimena lortu zuen Puntako haitzetik (Talaipetik) Sanmigelazpirainoko (araztegi

parerainoko) tartean; baina guztiak ez zeuzkan aldeko, eta berehala aurka jarri zitzaizkion Marinelen Kofradia eta Zumaiako Udala, erabaki horrek eremu publikoa pribatizatuko zuelako, herritarrei arrantzarako edo itsaski bilketarako lekuak kenduko zizkielako eta nabigazioa oztopatuko zuelako. 1864an Isabel II.a erreginarenganaino iritsi ziren kekek eta alegazioak, baina hark arrazoi eman zion Gurrutxagari, eta haztegia eraiki zuen Arbustainen, gaur egun Errotako izkina dagoen aurrealde horretan.

Gurrutxagarekin batera, herritar gehiagok ere egin zituzten haztegiak, eta Udalak propio ere bultzatu zituen; horrela, 1867an, “acordó el

Ayuntamiento que para la procreación y fomento de ostras en esta ría se suplicara a cada uno de los que se dedican a esa industria en esta jurisdicción depositar dentro de las aguas de la ría y en los sitios de más conveniencia y utilidad para aquel objeto una o dos gabarradas de piedra, y de los fondos municipales igual número de gabarradas que todos los industriales”; 1868an ere antzeko zerbait erabaki zuen Udalak: “Para el fomento de la industria ostrera y procreación de este molusco se acordó que cada obrero echase en la ría de esta villa una gabarrada de piedra, y de los fondos municipales diez y seis gabarradas”; beraz, aurreko proportzioa kontuan izanik, pentsa dezakegu hamasei lagun inguru ibil zitezkeela ostrak



Paolalde eta Amaia plaza ingurua betelanik egin gabe ageri dira. Azpialdean, Gurrutxagaren ostra haztegia ageri da, Arbustainen. ZUMAIKO UDALA

hazten. Azkenik, urtebete geroago, 1869an, “Manifestó el Señor Presidente que ha tenido quejas de que en la ría y canal de este Puerto se extrae piedra, y según le han asegurado, algunas con ostras; y siendo en perjuicio de la propagación y multiplicación de ostras, opina que se debe prohibir la extracción de toda piedra en toda la ría de esta Villa, desde la Barra hasta el puente de Mancior [Mantzidor, Oikian], siempre que no impida la libre navegación”³, eta horren berri eman herritarrei “por medio del Señor Cura Párroco según costumbre, imponiendo una multa de 20 reales vellón al contraventor de esta determinación”.

Ostrak direla eta, bada beste aipamen polit bat udal aktetan, 1900ekoa. Artean Vascongados (Euskotren) tren inauguratu gabe zegoen, baina bazebilen atzera-aurrera, probetan; Esteban Aranguren alkateak jakin zuen hurrengo egunean, 14:00etan, trenaren arduradunek Zumaiatik pasatu behar zutela Debarako bidean, eta proposatu zuen Estazioan zain egotea eta “suplicarles pongan un par de trenes diarios de Zarauz a esta [localidad] durante las fiestas Eus-karas, ya que no se podrá inaugurar la línea para esta fecha”⁴. Eskaeraren lagungarri izango zelakoan, “se les haga un



Gurrutxagaren ostra haztegiaren plano. OIHANA ARTETXE

presente con unas cuantas docenas de ostras y unas botellas de chacolí”.

Urte batzuk geroago, 1948an, ostrak ez, baina muskuiluak ageri zaizkigu Estatuaren Aldizkari Ofizialean (BOEn)⁵: Estatuak baimena eman zion Galo Florentino Alvarez Arteta Abasolori ur gaineko haztegiak jartzeko Urola eta Narrondo ibaietan; horretarako lau urteko epea eman bazion ere, badirudi ez zuela haztegirik jarri. Orain

baino garbiago etorriko ahal zen ura garai hartan...



Ostrak jateko prest. Hauek *Ostrea edulis* dira, besteak beste Galizian hazten dituztenak. PIXABAY.COM-ETIK HARTUA



Ostra haztegia Castropolen aurrealdean, Eo ibaiaren itsasadarrean, Asturias eta Galizia arteko mugan. Parrila batzuen gainean jartzen dituzte ostrak, zakuetan sartuta, eta aidian behin irauli, oroldirik ez itsasteko. JAVIER GARCÍA MANSILLA, REPSOL GIDAN

PUBLIZITATEA

Ostolaza
altzariak

Tel/Fax: **943-86 13 25**
Julio Beobide Ibiltokia, 1 • 20750 **ZUMAIA** (Gipuzkoa)
mueblesostolaza@euskalnet.net / www.mueblesostolaza.com

Rosi Garbiketak

Etxeak eta dendak
Enpresa eta auzo lanak
Arropa garbiketa eta tindaketa

Basadi, 3-A tel. 943-01 63 53

SOLOZABAL
autoeskolak

Etkezaretza, 19 • 943-861416
zumaia@solozabalautoeskolak.com

talaraia
taberna • jatetxea

Santiago auzoa, 4 Tel. 943-14 33 70

Tabaia
Taberna

Enbena kalea
20750 **ZUMAIA** (Gipuzkoa)
tel. 943-86 19 73

TTAKUN TABERNA

Izustarri, 3
tel. 943-86 52 89

TXIMISTA
garagardotegia

Ogitartekoak
Plater konbinatuak
Txerri-ukondoak (kodilloa)
Saltxitzak, oilaskoak...
Garagardoak aukeran

Ondartzo plaza, 4 beheko Tel. 943 573 905

UKENDU
PARABOTIKA
BELARDENDA
Aitziber Etxeberria Garro
Farmazialaria

Kantauri plaza, 2 943-86 09 92 www.ukendu.com

UZKUDUN
taberna

Eusebio Gurrutxaga plaza, 10 - 20750 **Zumaia** (Gipuzkoa)
Tel.: 943-11 63 97

Xanti
ALTZARIAK

Amaia plaza, 13 tel. 943-86 23 85
www.xantialtzariak.com

yoana
ileapaindegia

Amaia plaza,
2 beheko
943-14 32 78

Zalla
taberna

- plater konbinatuak
- ogitartekoak
- oilasko erreak

Urrutia Plaza 3 • 943-86 23 87 ZUMAIA

ZUMAIA AUTOESKOLA
E-mail: zumaiaautoeskola@hotmail.com

BASADI, 12
20750 ZUMAIA
tel. 943 86 10 18 / Fax: 943 01 61 26

Zumaia Hotela
Jatetxea
Kafetegia

Aleia auzategia • 20750 Zumaia • tel. 943-14 34 41 • faxa 943-86 51 61

Jarri zure iragarkia
BALEIKEn
943-86 15 45

BALEIKEn
25 urte
zatoz gurekin ospatzera

Joan den udan, Ondarroatik Lekeitiorako errepidetik nindoala, buia hori batzuk ikusi nituen itsasoan, txukun-txukun lerrokatuta, estropadetakoak bezala. Gero jakin nuen Eusko Jaurlaritzak inguru hori itsas haztegiatarako interes eremu izendatu zuela, etorkizunean muskuiluak, ostrak eta ostarrenak hazteko, eta duela gutxi telebistan ikusi nuen, sukaldaritzako programa ugari horietako batean, nola handik muskuiluak ateratzen zituzten eta denon aurrean prestatzen.

Gurean, baten batek ikusi nahi baditu muskuiluak edo ostrak, erraz aurkituko ditu Moilan, Moilaberriaren barrenaldean, zubien euskarrietan... Gureak *Crassostrea angulatak* dira, ostratzarrak (gaztelaniaz “osti6n” edo “ostra portuguesa”). 1990eko hamarkadan egindako azterketa batean adierazi zutenez, Zumaiako erriean, ostren biomasa 30 tona ingurukoa zen, eta pentsatzekoa da gaur egun handiagoa izango dela, barrako eta kirol portuko obrak egiteko

1990KO HAMARKADAN ZUMAIAKO ERRIEAN OSTREN BIOMASA 30 TONA INGURUKOA ZELA DIO AZTERKETA BATEK



Zubitxikian ere hantxe daude, itsatsita. IMANOL AZKUE

harri gehiago ekarri zutelako. Ez izan horiek jateko tentaziorik, ordea: bi lagun haiek ostrak hartzen atxilotu zituztenean, azkar asko esan zuten ez zirela jateko modukoak. Alde ederrekoak harraldean hazten diren ostrak, eta oker handirik gabe, oraindik ere han egongo dira, azkeneko aldiz utzi nituen tokian, baina ez dut esango non, badaezpada ere, hurrena ere han egon daitezen, ahogozagarri. ■

¹ Zumaiako Udal Artxiboa, 73.01, 122. or., 1867-04-28.

² *Ibidem*, 159.or., 1868-05-22.

³ *Ibidem*, 225.or., 1869-09-22.

⁴ Zumaiako Udal Artxiboa, 2829, 36. or., 1900-09-06.

⁵ BOE, 1948-03-11n, 12an eta 13an.



Ostratzarrak Moilaberrian. IMANOL AZKUE

KULTURA

Elefantearen oihua bueltan da

TESTUA ETA ARGAZKIA:

JUAN LUIS ROMATET

Big Boy taldea bueltan da, inoiz joan ez bada ere. Hirugarren diskoa grabatu dute uztailean, zuzenean, baina publikorik gabe, Zumaiena ikastetxeko aretoan. Diskoa urte bukaera baino lehen kalean egotea espero dute.

Uztailaren 13an kontzertua eman zuen taldeak, Itzurun hondartzan egindako Surfestan. Han aurkeztu zituzten disko berrian sartuko dituzten abestiak. Kanta hauetan ere hain propioa duten errezeta mantentzen dute: umorea, surrealismoa eta haizezko instrumentuek ekartzen duten Balkanetako oihartzuna.

Jon Garciak (gitarra eta ahotsak), Iñigo Garciak (tronboia), Iker Hazasek (bonbardinoa), Uhin Loiolak (bateria), Juan Luis Blancok (teklatuak) eta Unai Eizagirrek (baxua) osatzen dute, gaur egun, Big Boy. Eizagirre da taldera heltzen azkena. “Espero dut definitiboa izatea”, zioen Jon Garcia diskoaren grabazioak utzitako tarte batean. “Harkaitz [Bastarrika, TikTara taldeko burua eta baxu jotzailea] mila gauzatan zebilen, eta Unai ere hala dabil... –Voltaia eta Ezpalak taldeetako baxu jotzailea ere bada–. Hasi ginenetik laugarren baxu jotzailea da Unai, eta espero dut betirako geratzea”. Taldetik pasatako baxu jotzaile bakoitzak bere estilo propioa



Big Boy seikotea Zumaienan egindako grabazioko une batean.

ekarri diola onartu du abeslariak.

Aurreko bi diskoekin alderatuta –*Big Boy* (2014) eta *Zapasalto* (2016)–, azpimarratu dute berri hau taldekide guztien artean lokalean bertan egindakoa dela. “Haria aurrekoen parekoa da. Musika aldetik aurrekoen ildoan mantentzen da. Baina, konposatzeko orduan, honetan denok bat egin dugu. Den-dena lokalean atera da. Lehen diskoa gehiago izan zen Iñigok eta biok estudioan egindakoa. Bigarrenean ideia batzuk bazeuden, eta haien gainean egin genuen denok lan. Hau da dena lokalean egin dena. Hasieratik bukaerara denok egindako zerbait izan da”, zioen Jon Garciak.

Iraupen laburreko diskoa izango dela diote taldekideek. Abesti gehiago konposatu baino nahiago izan dute bere horretan utzi. “Kanta bereziak dira, eta iruditu zitzaigun beste abestiren bat sartuta konjuntua

hautsiko zela. Abestiak lokalean grabatu genituen lehenbizi, sekuentzia desberdinak probatu genituen, eta gustukoa genuen ordena lortu genuenean, kontzertua eta diskoaren grabazioa lotzen saiatu ginen”, azaldu zuen Iñigo Garciak.

Zumaienako aretoan grabatu zuten diskoa uztailean, Itzurungo kontzertua eman eta gutxira. “Abestiek osotasun bat dutenez, egokia iruditu zitzaigun diskoa zuzenean grabatzea. Aurreko diskoak grabatzean batak bestearena ez zuten entzuten, eta horren pena nuen; nik, behintzat”, zioen Iñigok. “Banaka grabatzea ez da gauza bera. Eta, horregatik, kontzertu bat balitz bezala grabatzea pentsatu dugu, denok batera jotzen”.

Diskoa ateratzeko eperik ez dute jarri, baina urtea amaitu baino lehen kalean izatea espero dute, ahal izanez gero, abendurako, Durangoko Azokarako. ■■■

AGENDA

DEIALDIAK

IRAILEKO OSTIRALETAN

Jai Lai World Tour Grand Slam.
Aitzurin.

IKASTAROAk Cursos
2019-2020 FORONDA KULTUR ETXEAN

IZEN-EMATEAK: Irailak 10-17 egutegian. **HASTA COMPLETATU GRUPOS**
Inscripciones: 10-17 egutegian. **HASTA COMPLETAR GRUPOS**
Partekatu ikastaroak gure webgunean: www.ikastaroak.com edo zuzuki Forondegian. **Ikastaroak 10000** irailak 10-17 egutegian. **HASTA COMPLETAR GRUPOS**

| HAURRAK 4-6 | HAURRAK 6-12 | GAZTEAK 12-16 |
|--|---|---|
| PLASTIKA TALERRA ASTOLERRA eta ASTAZORRA Irailak 10-17 Irailak 7 - martxoak 27 Irailak 10-17 egutegian. HASTA COMPLETAR GRUPOS | ARTISTA LIBURUA Irailak 10-17 Irailak 7 - martxoak 27 Irailak 10-17 egutegian. HASTA COMPLETAR GRUPOS | ONARRIZKO PINTURA Irailak 10-17 Irailak 7 - martxoak 27 Irailak 10-17 egutegian. HASTA COMPLETAR GRUPOS |
| HELDUAK | ZERAMIKA TALERRA Irailak 10-17 Irailak 7 - martxoak 27 Irailak 10-17 egutegian. HASTA COMPLETAR GRUPOS | ONARRIZKO ZERAMIKA Irailak 10-17 Irailak 7 - martxoak 27 Irailak 10-17 egutegian. HASTA COMPLETAR GRUPOS |
| PINTURA TALERRA Irailak 10-17 Irailak 7 - martxoak 27 Irailak 10-17 egutegian. HASTA COMPLETAR GRUPOS | TAI CHI Irailak 10-17 Irailak 7 - martxoak 27 Irailak 10-17 egutegian. HASTA COMPLETAR GRUPOS | YOGA Irailak 10-17 Irailak 7 - martxoak 27 Irailak 10-17 egutegian. HASTA COMPLETAR GRUPOS |
| EGUR TALIA Irailak 10-17 Irailak 7 - martxoak 27 Irailak 10-17 egutegian. HASTA COMPLETAR GRUPOS | GENEALOGIA Irailak 10-17 Irailak 7 - martxoak 27 Irailak 10-17 egutegian. HASTA COMPLETAR GRUPOS | ERAKUSKETA Irailak 6-22 Irailak 7-9 asteburuetan 16:00-19:30 |
| CONTROL MENTAL Irailak 10-17 Irailak 7 - martxoak 27 Irailak 10-17 egutegian. HASTA COMPLETAR GRUPOS | MUSIKA, DANTZA ETA ANTZERKIA Irailak 10-17 Irailak 7 - martxoak 27 Irailak 10-17 egutegian. HASTA COMPLETAR GRUPOS | |
| ESKULANAK Irailak 10-17 Irailak 7 - martxoak 27 Irailak 10-17 egutegian. HASTA COMPLETAR GRUPOS | | |

IRAILAK 10ETIK AURRERA

Ikastaroetan izen-ematea.

EGUNERO

Geoparkeko bisita gidatuak.
www.geoparkea.com

ERAKUSKETAK



Beobide: 1881-1969

Erakusketak

Irailak 6-22

Irailak 7-9

16:00-19:30

Irailak 6-22

Irailak 7-9

16:00-19:30

Irailak 6-22

Irailak 7-9

16:00-19:30

Irailak 6-22

Irailak 7-9

16:00-19:30

IRAILAK 6-22

Beobide: 1881-1969.

IRAILAK 26-URRIAK 13

Fernando Mardones.

IRAILA

14 LARUNBATA

Triatloia.

Gernikako parkean. Triatloi herrikoia: 15:30ean. Triatloi sprinta: 17:00etan.

21 LARUNBATA

Olarru eguna.

22 IGANDEA

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa final zortzirenak.

Aita Marin, 17:00etan.

27-29

Artadiko jaiak.

28 LARUNBATA

Lasterketa: Euskal Kosta Krosa. Getarian irteera, 17:00etan.

URRIA

5 LARUNBATA

Familiarentzat ikuskizuna: Chez emballage, Zumb, Sandra Aguerri eta Esti Curiel.
Zumaiena, 18:00etan.

Iragana ez da beti hoberena



MUNDUKO TOKIRIK EDERRENA

Egilea: Iñigo Aranbarri
Argitaratzailea: SUSA
Argitaratze urtea: 2018
Orrialdeak: 160
Generoa: Narrazioa



TESTUA: ASIER ARAKISTAIN

Munduko tokirik ederrena liburu honetan bere baitan sortzen zaion galdera bati erantzun nahi izan dio idazleak: nola bizi atzoko guztiak gero eta pisu handiagoa hartzen duen honetan? Galdera horri erantzuteko asmoz, edo zehazkiago irakurleri galdera hori luzatzeko asmoz, hamar ipuinek osatzen duten liburu hau aurkeztu zuen iaz Iñigo Aranbarri idazle azkoitiarrak.

Errepidean hildakoen bitartez bailararen istorioa kontatu nahi duen jonki ohia, ezkontza baten lurrunetan dabilen poliziaren gogoetak, lagunaren emazte alargunari etxea husterako doakion hirukotea, amaren ordeztu herrira itzuli den gaztea, eredu izango den modeloaren bestaldea, galdutako pistola baten ibilerak, kondenatua hiltzen ikusita betiko mututu den emakumea...

Elkarren artean desberdinak diren ipuinak iruditu arren, denek dute elkarren arteko lotura zuzena. Ez soilik geografikoki eremu berean finkatzen direlako, guztioi hain gertuko egiten zaigun iragan ez hain urruneko testigantza jasotzen dutelako baizik. Idazleak berak dioen bezala, historia oso urruneko denbora da, memoria aldiz gertuago dagoen espazioa, oraindik min ematen duen zerbait, baina memoriaren eta gaur egun bitartean bada espazio bat, atzoa. Eta atzo horretan daude kokatuta hamar narrazio hauek.

BADOAN GARAI BAT DESKRIBATZEN DIGU IDAZLEAK LAN HONETAN, BAINA NOSTALGIARIK GABE

Badoan garai bat deskribatzen digu idazleak lan honetan, baina inolako nostalgiarik gabe eta ezer ederretsi gabe, ipuin bateko pertsonaiak dioen bezala, iraganeko garaiak ez zirelako hobekak.

Liburuaren azalean ere mezu ironikoa igortzen digu idazleak, *Munduko toki ederrena* izenburua jarri eta Raymond Depardon argazki bat azaltzen zaigu, Glasgoweko auzo dekadente bat erakutsiz. Azken finean, nor ez du inoiz entzun, hemen baino hobeto inon ez, nahiz eta jakin munduko tokirik ederrenetan ere gauza lazarrienak gertatzen direna.

Hona hemen Iñigo Aranbarri idazlearen azken lana, literaturan ibilbide oparoa izanik ere, bere lehen ipuin liburua dena. Zalantzarik gabe, irakurri ostean zer pentsatua ematen duten lan eder horietako bat. ■■■

Publikoa eta barnekoa



IBANE ASTIGARRAGA

Bakoitzarena da mundua ulertu eta sentitzeko modua, ez baitugu guztiok mundua ikusteko dugun era konpartitzen. Geure buruaren nortasuna adierazteko modu propioa dugu guztiok, bakoitzak berea; are gehiago esango nuke nik, bakoitzak munduan izateko edo egoteko modu bat baino gehiago ere badituela; ez garelako gu norbanako soil modura existitzen, ingurukoekin erlazioan baizik, bi aspektu bereiz daitezke batik bat, barnekoa eta publikoa, nahiz eta gehiago ere izango diren. Izan ere, gure sinesmen eta ezagutzek gauzekiko dugun ikuspuntua eraldatzen dute.

Momentuko egoerak, errealitateak, azken emaitza baldintzatzen du, baita eginiko lan hori modu publiko batean azaldu behar izateak ere, eta horrek gu publikoa eta gu barnekoa bereizi behar izatea dakar.

Artistek ere egiten dute bereizketa hori, beraiantzat

diren lanak eta publikoarentzat direnak bereiziz. Badaude bere garaian ezkutuan geratu ziren artistak ere, Vivian Maier argazkilaria, kasu. Vivian Maierren lanek ez zuten argia ikusi haren heriotza arte, haur zaintzaile lanetan aritu baitzen gaur hain famatu egin den argazkilaria. Haren egunerokotasuna islatzen duten argazkiak dira gehienak, baita autoerretatuak ere, berak bere burua ikusten zuen modua azaltzen digutelarik horiek.

Ondorioz, esan dezakegu argazki horiek Vivian Maierrek bere errealitatetik mundua ikusteko zuen modua adierazten digutela, barnekoa. Baina ongi interpretatzen ote dugu ikusmolde hori guk? Ez

**IZAN ERE, GURE
SINESMEN ETA
EZAGUTZEK GAUZEKIKO
DUGUN IKUSPUNTUA
ERALDATZEN DUTE**

ote gaituzte helburu batera zuzentzen? Edo dagokion errealitatetik at ikustean ez ote digu azken emaitza hori baldintzatzen?

Izan ere, argazki horien helburua ez zen argitaratzea, are gutxiago museo batean esekirik publiko zabal bati zuzenduak izatea; erabiliak izatean bere benetako esanahia eraldatu edo galdu egin dutela ere esan genezake. Emakume arrunt baten etxean aurkitutako argazkiak artelan bilakatu direnez, mitifikatuak izan dira, eta horrek publikoak haiek ikusteko zuen ikusmoldea ere baldintzatu du.

Maiz, saiatzen gara buruan duguna azaltzen, eta ez dugu jakiten azaldu nahi izan dugun hori guztiz ulertu ote duen hartzaileak, irudiak baitira gu hitzez azaltzen saiatzen garen hura. René Magritte pintore surrealistak azaltzen zuen modura, hitzaren eta geure buruko ikusmoldearen edo irudiaren artean arrakala bat baitago. ■

Pavloven rabak



JUAN LUIS ROMATET

Ivan Petrovitx Pavlov mediku, fisiologo eta psikologo errusiarrak (1849-1936) Medikuntzako Nobel saria irabazi zuen 1904an digestio guruinei buruz egin zituen azterketengatik. Hori hala izanda ere, txakurrekin egindako esperimentuengatik da ezagunagoa. Askok entzun dugu Pavloven txakurra terminoa, nahiz eta ziur ez jakin zer dagoen bi hitz horien atzean.

Psikologia eta hezkuntzako pertsonaia garrantzitsuenetakoa da Pavlov, baina, harrigarria badirudi ere, bere lehen asmoa txakurren listu jariaketa aztertzea izan zen. Hauxe dakar Wikipediak: “Bere esperimentuak egiten zituen bitartean, esperimentua behin eta berriz errepikatu ondoren, atentzioa eman zion txakurrek adurra sortzen zutela Pavlov ikusten zutenean. Hori gertatzen zen animaliek ikasi zutelako Pavlov atetik sartzen zen bakoitzean, edozein momentutan janaria jasoko zutela. Aurkikuntza horren ondorioz, fisiologoari esperimentu sail bat bururatu zitzaion: kanpai bat jotzea txakurrei janaria eman baino lehen, eta, horrela, listu produkzioa neurtzea. Pavlov ohartu zen kanpai hotsa janariarekin lotzeko txakurrak entrenatzen zirenean, listua produzituko zutela nahiz eta janaririk ez egon. Hau da, kanpai hotsak listua produzitzea eragiten zuela janaria aurrean izango balute bezala. Esperimentuak frogatu zuen txakurren erantzun fisiologikoa, listu jariaketa, kanpai-hotsaren estimulura lotua zela”.

Susmoa badut Pavloven oinordeko bat, edo haren ikerketak jarraitu zituen zientzialari bat, gure artean izan zela esperimenturen bat egiten gure gurasoak eta gu geu ohartu gabe. Nire ustea da, eta ez pentsa horregatik konspiranoiko hutsa naizenik, euskal musikarekin eta gastronomiarekin esperimentatu zuela pertsonaia makiaveliko horrek. Txakurrei kanpai hotsak entzuteak txistu jariora handitzen zien; Interneteko foroetan egindako ikerketa sakonek diote, berriz, *Aldapan gora* entzuteak txibierroak jateko gogoa eragiten digula. Izan ere, zergatik jartzen digute Zumaiaiko tabernetan igande goizetan euskal musika –trikitixa, Urtzen gauza horiek, *Sing-Sing-Atiko folk & rolla*– txibierroak edo, Zumaian diogun bezala, rabak jateko ez bada? *Bexamela eta pastela* jartzen diguten bakoitzean, akaso ez zaigu ahoa txistuz betetzen eta ez gara rabetan pentsatzen jartzen? Benito Lertxundiren *Baldorba* entzutean ez al gara presaka aulkitik jaikitzen eta bultzaka barrara hurreratzen kalamarrak eskatzera? Zergatik ez dute *Eperra* arratsaldeetan jartzen herriko tabernetan? Agian txibierroak garai horretan zerbitzatzen ez dituztelako?

Galdera gehiegi, zalantza gehiegi. Gasteiztar unibertsalak dioen bezala, eta ez naiz Sotosalboseko bizilagun ilustreaz ari, "aztoragarria da hau dena". ■■■

**ZERGATIK EZ DUTE
EPERRA
ARRATSALDEETAN
JARTZEN HERRIKO
TABERNETAN?**



denda:

Mendaro marinela, 1
tel.: 943-14 33 46

biltegia:

Jose M^o Korta Industriegunea
Pab. A6.1, 2-5 mod.
tel.: 943-86 11 17
fax: 943-86 13 30

industriarako nahiz etxerako
era guztietako material, tresna, pieza eta osagarriak

ZATOZ ITSASOAREKIN GOZATZERA!



Webgunea: talasoterapiazelai.com

Tel. 943 865 100

Talasoaren ordutegia: Egunero irekita 9:30etik 20:30era

Jatetxea eguerdian irekita, eguerdia eta gauean.





HELDUEN LIBURUTEGIKO ORDUTEGI BERRIA

Astelehenetik ostiralera

9:30-20:00

ORDUTEGI JARRAITUA

Larunbatetan

9:30-13:30



Zumaiako Udala

ZUMAIA TXARTELA

*Gertu bizi,
gertu erosi.*

ESKURATU VISA TXARTEL
BERRIA ETA ERAMAN

10€



Zumalako Udala



CAJA RURAL



ZUMAIKO MERKATARI & OSTALARI ELKARTEA